

uk

96. zenbakia / 2006 martxoak 19





Kantuketan

osteguna 6

Iker Goenaga

Getxo Antzokia
20:00
gonbidapenez

ostirala 7

Javi P3z Orkestra

Getxo Antzokia
20:00
gonbidapenez

larunbata 8

Ken Zazpi + Uski's


Algortako Portu Zaharra
20:00
doakoa

igandea 9

Juan Carlos Pérez Bernardo Atxagarekin

Getxo Antzokia
20:00
Teleka: 5€ aurretiko salmenta
6€ txarteldegian

UK galeria > Asier Mentxaka



Gehienok ezagutuko duzue Asier Mentxakaren (Getxo, 1972) lana, izan ere UK aldizkari honetako argazkilaria da bera. Gure aldizkariaren orrialdeetan argitaratzen diren irudi gehienak berak egindakoak izaten dira. Gazte-gaztea zela, artean 16 urte baino ez zituela, *Egin* egunkarian hasi zen beharrez eta harrezkero beti fotografiari loturik ibili da Asier.

Makina bat sari ere eskuratu ditu, besteak beste: Bilboko Foto-Gazte, *Caminos de hierro* Renfe enpresaren lehiaketa prestijiosuan lau alditan aukeratu dtuzte bere lanak, Ihebeko ingurumen lehiaketan 2. sailkatu zen (2002), Gorlizkoa irabazi zuen (2002), Leioakoa ere bai (2002), etab.

Esku artean darabilzun zenbaki honen azalerako udaberriaren gaineko argazki bat eskatu genion.



«Udaberrik odola aldatzen dik» Euskal esaera zaharra

Non zer

4. GU GEU.
5. IRUDIA. Marxoaren 8a. Asier Mentxaka.
6. PLAZA. Leihatila, Maddi Albizu. Jokin de Pedro. Photoshop.
7. LEHEN ETA ORAIN. Getxoko Maidagan kalea, 1973-2006.
8. TALAIA. Beste begirada bat eskualdeari.
11. ERRETRATUA. Juan Ramon Celaya.
12. HERRIZ HERRI. Getxo 12. Leioa 16. Erandio 18. Sopelana 20. Berango 22. Gainerako herriak 23.
25. AGENDA.

SAKONEAN

26. ALBUMA. Getxoko zinekluba, Asier Mentxaka.
28. ARGAZKIA. Sokamuturra, Mikel Martinez.
30. BERBETAN. Mikel Feijoo, Unai Brea.
34. FOTOGRAFIA. Leioako Alzaga Ikastola, Juan Luis Markaidea.

KULTURA ETA AISIA

42. ZINEMA. Oskar Fernandez zutabea. Euskal zinema aztergai Leioan.
43. MUSIKA. Musik-Herriak disketxea. Diskoen erreseinak.
44. LIBURUAK. Haur eta gazteen liburu eguna. Liburuen erreseinak.
45. KIROLAK. Raquel Hernandez, taekwondo.

EUSKARAZ

46. ELKARRIZKETA. Xabier Basañez BECeko gerentea, Unai Brea.
47. AKABUKO PUNTE. Gure euskara, Xabi Bilbaoren eskutik.

AMAITZEKO

48. JAN ETA EDAN. Gaizka Escuderoren errezeta eta Itsaso Aranaren ardaoaren gaineko lezioa. Nora joan? Adibidez, Naihana tabernara.
50. HOROSKOPOA.
51. KOMIKIA. Dogan Gozel.
52. DENBORAPASA ETA LEHIAKETA.
53. FLASH BACK. Getxo Txiki futbol taldea (1934), Bittor Egurrola.
54. AITORMENAK. Aiora Renteria, Oiane Moran.



30 Olatz Osa



46 Xabier Basañez

Berbetan

Elkar argitaletxeko zuzendaria. Euskal kulturaren industriak aurrera egiteko dauzkan zailtasunen berri eman digu oñatiar euskaltzaleak.



54 Aiora Renteria



34 Leioako Alzaga Ikastola



45 Raquel Hernandez



11 Juan Ramon Celaya

UK URIBE KOSTAKO ALDIZKARIA

ARGITARATZAILEA: Boluntzarreta
HELBIBIDEA: Amezi 6, 4. solairua, 5. bulegoa 4891 GETXO
 e-mail: uk@aldizkaria.biz / Posta Kutxa 171
 Tel: 94 491 13 37
ZUZENDARIA: Jokin Aspuru
ERREDAKZIOA: Irantzu Sagaminaga, Aritz Bregel, Olane Moran
FOTOGRAFIA: Asier Mentakak
TESTUEN ORRAZKETA: Jon Etxebarria
KOLABORATZAILEAK: Unai Brea, Bittor Egurrola, Xabier Bilbao, Oskar Fernández, Unai Arnozaga, Itsaso Arana, Gaizka Escudero, Ainhoa Lorea, Amaia Arriaga, Berbots Erandion Euskaraz eta Bizarra Lepoan Euskara Elkarteak.
MARRAZKILARIAK: Dogan Gozel, Gorka Vázquez
PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA: Zuriñe Martínez (94 491 13 37)
KANPO HARREMANAK: Gorka Orueta
FILMAZIOA: Argia / **INPRIMATEGIA:** GESTINGRAF
LEGE GORDAILUA: BI-1878-00
ISSN: 1576-6799
 Osonik edo zatiz, makinaz zein informatikaz kopiatzea, baimen barik, erabat galarazirik dago
 © Boluntzarreta
 Aldizkari hau Euskal Herriko herri aldizkari eta euskara elkarteetako Topaguneko partaidea da

Aldizkari honek Bizarra Lepoan Euskaraz Elkartearen dirulaguntza jasotzen du

Itxasgane Etxea / Karitatea 1
 94 491 43 57 / 48990 Algorta

Aldizkari honek Getxoko Udalaren dirulaguntza jaso du

Aldizkari honek Leioako Udaleko Euskaraz Zerbitzuko dirulaguntza jaso du

Aldizkari honek Erandioko Udalaren dirulaguntza jasotzen du

Aldizkari honek Gatzako Udalaren dirulaguntza jasotzen du

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren dirulaguntza jaso du

Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sailaren dirulaguntza jaso du

uk
 94 491 13 37
 uk@aldizkaria.biz

gugeu

Ale honetan

Eta azkenean, eta betiko moduan huts egin barik, heldu da. Neguko iluntasuna eta gero, ate joka daukagu udaberria. Urteko lau urtarostatik lehenengoa, gure hemisferioan, martxoko ekinoziotik ekaineko solstiziora hedatzen da udaberria. Natura bere lozorrotik esnatu eta bizitza atzera hasten dela ematen du; loreak loratu, arbolak hostoz bete, egunak luzatu, giroa epeldu... Horiek guztiek zalantza barik eragin huzena izaten dute gizakiongan eta, oro har, danok hobeto sentitzen gara; bizi-gogoia, naturan bezala, gugan ere ernatzen.

Leioako Altzaga Ikastolan 90eko hamarkadan Juan Luis Markaida irakasle eta argazkilariak fotografia eskolako ematen zizkien OHOk 7. eta 8. mailako ikasle gazte-gazteei. Hamar bat urte iraun zuten lantegi haiei buruzko irudiak ekarri ditugu zenbaki honetako fotografia atalera. Erreportaje hau egin eta gero, kasualidadez edo, iaz dokumentalik onenaren Oscar saria eskuratu zuen *Born in to brothers* filma ikusteko aukera eduki dugu. Pelikula horretan Bonbayko prostituten seme-alabak mundu ilun horretatik ateratzeko ekimen baten berri ematen da. Argazkiak egiten irakasten zaie haur horiei, fotografia eskolako hartzen dituzte. Horretan datza euren heziketa. Kurioso iruditu zaigu munduko hain bazter urrunetan antzeko ekimenak guk aurkitzea.


Bonbayko haur horiek Leioakoak baino udaberri goibelagoa bizi izango dute, seguru. 4

UK-ko lantaldea

irakurleak

Zuon iritziak, eskaerak, proposamenak... garrantzitsuak dira guretzat. Harremanetarako: uk@aldizkaria.biz • Tel.: 94 491 13 37

matematika aplikatua



Gorka Vázquez

Goizero irakurri > berria



[irudia]

ALGORTAKO SAN NIKOLAS PLAZA, MARTXOAK 8

Andre beharginak / Martxoaren 8an Ana Rosa Tercero dantza eskolako ikasleek San Nikolas plazan eskainitako ikuskizuna daukazu begi aurrean. Dantza garaikideko agerrialdia eskaini zuten Emakumeen Nazioarteko Egunean. Makurtuta ageri dira. Baina dantzan dabiltzala dakigu. Ikasleak direla diogu, ostera, biharko irakasleak izan litezke. Biribil ixian bilduta daude, alabaina sartu eta irretoko aukera uzten dute. Buruak behera, lurrari adi ikusten ditugu, baina altxatuko direla iragarren ditugu. Begiek zuri-beltzean antzematen dituzte, eta buruak kolorez beteriko etorkizuna marrazten du. Bidea egiten jarrai dezagun dantza eginez. / Argazkia: **Asier Mentakak**

Leihatila

> Maddi Albizu

Gerra kimikoa
Getxon

Pixohialen gerra deiturikoa gerra kimikotzat jo genezake lasai asko Getxoko hainbat eskolatan pilatutako pixohialei darien kiratsari erreparatuz gero. Dirudienez, oraindik erabat arautu gabe dauden bi urteko geletan arduen banaketa ez dago erabat zehaztua. Udalak gela hauen garbiketa berari ez dagokiola dio. Orain arte, berriz, Udalak biltzen zituen pilatutako pixohial zikinak, mesede modura edo. Ez dut gai honetan jarrera dramatikorik hartuko ("ohore" hori Getxoko udalean oposizioan ari direnei uzten diet) eta, hortaz, ez dut esango gure seme-alaben osasuna arrisku bizian dagoenik bi urteko geletako haurren pixohialak pilatzeagatik. Izan ere, munduko milaka eta milaka haurren osasun baldintza deitoragarriekin konparatuz gero gure umeak pribilegiatu hutsak dira. Hala ere, eta osasun kontua batere gutxietsi gabe, argi dago arazo honen ondorioak pairatzen ari direnak ume getxoztarrak direla eta, beraz, lehen mailako erantzulea Udala bera dela. Konpon dadila ba kontua! 4

IRITZIA

"Zer eskatzen diozu egun berri bakoitzari? Zeintzuk dira goizero ohetik altxatzeko zure arrazoiak?". Gai hau proposatu diogu hainbat laguni. Oraingoa Jokin de Pedro irakaslearen txanda da.

300 hitz-arrazoi
goizero ohea hozteko

Bat. Bi. Eten puntuak. Denak balio du. Jokinek (UK-ko zuzendariak) eskatu dit hirurehun berba idatz ditzadala goizean-goizean (mmm, marraoekin berba bat ala bi ote?) ohetik jaiki gaitzen arrazoiren bat emateko. Ez da hain zaila. Izan ere, aspaldi frogatua dago edozein gauzari buruz idatz daitekeela. Zer ganorarekin idazten den, hori beste kontu bat da (57 hitz, bagoaz). Gure lagun batek irakurri ere edozer gauza irakurtzen du. Gauza onak, gehienbat, baina, besterik ezean, eskuartera etortzen zaion guztia. Behin, lagunok, broma moduan edo, "Hormigoia Tratatu" eman genion opari, ea hari ere "hagina" —begia, errazago— sartzen ote zion. Ba, kontua da osorik ez bazen ere, ehun bat orrialde irakurri zizkiola tratatu trinkoari tripala txikiarik jasan gabe; gainera, hainbat jakingari eta ondorio praktikoa atera omen zituen. (123 berba, to!). Beraz, testu honen irakurle bat badaukat, hori ziur.

Ipuintxo bat sartuko dut. Horrek beti laguntzen du: Asperlandiako erregeak

azkenaldian ez omen zuen ezertara ere ohetik jaiki nahi. Egunkari eta gauak, gauak eta egunak ematen zituen bere izara gero eta ugerdoagoen artean. Zerbitzariak, lagunak, senitartekoak, bufoiak ere ez ziren gai Gorentasuna zuritzeko eta bere ohe guruari behingoz atsedean hartzen utz ziezaion.

Asperturik, gogaiturik eta nazkatutik zegoen soberanoa. Palazioko guztien artean inork ez omen zuen lortzen Maiestatea bizimodu eraginkorrera ekartzea. Betiereko letargoan zegoen!

«Asperlandiako erregeak
azkenaldian ez omen zuen
ezertara ere ohetik
jaiki nahi...»

Behin, ostera, atzerrian bizi zen lehengusu batek bidalita, pakete bat heldu zen erregeren esku aspertuetara. Paketerik ez oparirik aspaldian ez irekitzea erabakita bazeukan ere, bat-bateko jakin-mina egin zitzaion zerua goian eta lurra behean bizi zen lehengusu arlote hark bidali ziona ikusteko. Pakete saskeldo hura ireki eta azala kartoi merkez egina zuen kaiera bat azaldu zen. Erdetik zabaldu eta izarak bezain zuri: ez letrarik, ez irudirik; soilik arkatz zorrotz bat orri orbaingabeek besarkaturik.

Erregeak atoan ulertu zuen mezua: kaiera lehen orritik zabaldu eta arkatzaz betetzeari ekin zion. Lehenengo egunean bere barne egoera islatu zuen; ondorengo egunetan, bere bizimodu gogaikarriaren nondik norakoak; hurrengo, egoerak eta era guztietako menturak asmatzen hasi zen, bakoitzean pertsonaia desberdina zela, munduko hamaika eskualdetan kokaturik...

Eta erregeak idatzi zuen guztia jasoko nuke hemen 300 berba baino gehiago idazterik baneuka. 4

Jokin de Pedro

[lehen]



GETXOKO UDAL LEIURUTEGIA

[orain]



ASIER MENTXAKA

photoshop > uzta oparoa



Irudiak eta manipulazioa: A.

Iraganez doa denbora* beti / GETXOKO MAIDAGAN KALEA 1973-2006

* Denbora: gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.

uribitakora > zaharkitektoak



Algortako, Maria Kristina parkea

Testua: **Xa2 Paya** / Argazkia: **Asier Mentxaka**

Txapela eta bastoia,
adinaren bastoia,
zaharkitekturaren aditua den
patroi pelotoia.
Berdin plaza, espaloia,
eskola edo frontoia,
obrak badaude laster han dago
lehenengo espioia.

–Gaur egungo makinakaz
obra danak dabiltz eskas,
ez dira zulo txiki bat taxuz
egiteko kapaz.
–Ze peoi ta ze kapataz!
Geure sasoieta... ris, ras!
Metro-bidea egingo gendun
koilara bategaz!

–Han dago indusmakina...
–Zer? Ikusten dan Markina?
–Ez ba! Dinotsut zulo ondoko
paladun kabina...
–Zulataile hark, Andima...
–Zer dan gorra ba! Lastima!
–Ez ete dauka zeure eskuen
dardara bardina!

"Langileen indusketa,
agureen ikusketa".
Zaharkitektorik ikusiz gero,
gaztea, alerta!
Begitu erdi gordeka,
barreak ondo gordeta,
Peter Pan izan ezean denak
zahartzen gara eta.

* Doinua: Euskaleritik aparte



txistea > autobus xebreak

Ermuan kontatu zidaten, kristoren sustoa hartu zuela batek, autobusa hartzera joan eta irakurri zuenean:

–Autobusak, bihar eta berandu.
Eskerrak, azpian erdaraz jartzen zuena irakurri zuen:
–Autobuses, mañana y tarde.

888 txiste, Kike Amonarriz (Argia, 2004)

kirola > punta galea txirindulari taldearen aurkezpena

Eguraldiak lagundu ez bazuen ere, 2006ko denboraldirako Punta Galea Txirindulari Taldearen aurkezpen ofiziala egin zen martxoaren 5ean Algortako geltoki plazan. Getxoko txirindulariak eta taldeko bazkideak Bigarren Mundu Gerran (1940-1945) posta zerbitzurako erabili zen bizikleta batekin (beheko argazkian ikus daitekeena) agertu ziren kameraren aurrean.

Aurten hiru talde ofizial edukiko ditu Punta Galeak: txirindulari eskola (8 partaide), kadeteak (7) eta juniorrak (10). Bestetik, urte osorako makina bat ekintza antolatu dituzte eta horien berri ere eman zuten. Esaterako, apirilaren 6rako Javier Otxoa Klasika antolatu dute Getxon eta hil bereko 11n junior mailako Euskalerrria-Getxo saria egingo da. ^m

Punta Galeako lagunak kameraren aurrean. Informazioa gehiago: www.puntagalea.com

armarriak > barrika

Barrika Bizkaiko herririk zaharrenetakoa dela diote batzuek. Udalerririk izen bereko sortetxean du bere jatorria eta izaera nahiko berezia dauka; izan ere, biztanleria lur-eremu osoan barreiatuta dago eta ez du inoiz hirigunerik eduki. Bertoko biztanleak, lurra lantzeaz gain, baleak arrantzatzen irretzen ziren askotan. Hondo gorriko armarrarian, urrezko eliza bat dago, zortzi izpiko izar baten azpian eta, kostako herria izanik, itsaso urdinean kulunkatzen egongo balitz bezala agertzen da. ^m

Ezkerrean, Barrikako gaur egungo armarraria

saiazgetaria



HOTEL


Roke Deuna 25
280808
Getaria
Gipuzkoa



...harria



...lehengo garaiak...



...itsasoa

www.saiazgetaria.com / info@saiazgetaria.com / t. (+34) 943 140 143

[talaia]

urteurrena > Matrako gaztea gogoan



Joseba Andoni Sanchez Matrako gazte gorliztarra, borroka latza eta gero, orain dela urte bi hil zen minbiziak jota. Pertsona maitatua zen Matrako herrian eta horregatik bere lagunek omenaldia egin diote urtero bere jaiotegunean. Horrela, martxoaren 5ean Astondon lore eskaintza egin zioten Matrakori eta ondoren mendi ibilbidea egin zuten. Astondotik Armintzarainoko ibilbidea egiteko ohitura zeukan Matrakok, eta bera gogoan zeukatela bide berbera egin zuten omenaldira joan ziren 100 lagunek. Armintzan indaba jana egin zuten zendutako lagunaren ohorez. ^m



[erretratua]



Juan Ramon Celaya > Algortako Kasinoko presidentea

Juan Ramon Celaya, sortzez deustuarra, 1931n etorri zen mundu honetara. Ordurako, Algortako Kasinoak bazetuzkan 52 urte. Denboraz, bien bideek topo egin zuten: *“Tomateroa’ izanagatik ere, Algortan egin nuen denbora asko, aitak ekartzen ninduen eta”*, gogoratu du Celayak. 19 urtegar egin zen Kasinoko bazkide, hori ere aitaren borrokari esker: *“Adinez behenakoak ezin ziren bazkide izan, eta gani hartan 21 urtegar lortzen zen adin-nagusitasuna”*. Bizitza osoa kide izan eta gero, azken hamarkadan presidente izan dugu Celaya. *“Ez dut gauza handirik egin behar, enkarguak eta...”*, diosku erdi-txantxetan. Arratsaldero joaten da Kasinora, eguaztenetan izan ezik, kartetan jokatzera batez ere. Zaletasun askoko gizona da eta horiek huts eginarazten diote batzuetan. Ehiztari amorratua da, esaterako, eta lantzean behin Guadalajararaino joaten da egun batzuetarako, han dauka-eta ehiza esparrua. Kirolean ere nabarmendu izan da gazteago izanda: *“Bizkaiko lehenengo pinaguismo txapelketa neuk irabazi nuen”*. Bestela ere, itsasoari lotutako bizitza eduki du, oso gazte hasi zen-eta aititek sortutako Astilleros Celaya ontziolan beharrean, ikasketak bertan behera utzita, eta berak zuzendu zuen enpresa txanda egokitu zitzaionean. *“Azkenean, Espainiako Gobernuak itxi zigun, La Navalegaz elkartu eta gero”*. Mundu oso ikibitako gizona izanik, Algortako Kasinoan dauka orain bere mundu txikia. Gustura dabil hango kapitain pilotu, eta luzaroan irauteko gogoz gainera. ^m Argazkia: **Asier Mentxaka** / Testua: **Unai Brea**

AIXERROTA BHI
24 URTE EUSKARAZ IRAKASTEN

- TEKNOLOGIKOA
- BATXILERGOAK • NATUR ETA OSASUN ZIENTZIAK
- GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA (DBH) B ETA D EREDUAK
ZEREGINAK IKASTEKO GELA (A ETA D EREDUAK)

aurreinskripzioa: apirilean / matrikulazioa: uztailean

INFORMAZIO GEHIAGO: WWW.AIXERROTABHI.NET / 94 491 17 86



ERROTULOAK ERA GUZTIETAKO
ERROTULOAK eta
INPRESIO DIGITALAK
egiten ditugu

THE BEST
LINE ONEKO ERROTULOAK

e-mail: hirustab@euskalnet.net
Iparragirre etord. 90 (Avanzada) • LEIOA • Tfno. 94 480 41 15 Fax: 94 480 41 83

san inazio
autoeskola
1951n sortua

LCC - A1 - A - B - BTP
baimenak

Telletxe, 13 / Tel. 94 460 00 45
ALGORTA

Zirkulazio-istripu gutxiago

Pasa den urtean **Algortako eta Makaletako etorbideak** izan ziren trafikoko **gune beltzak**; bestalde, egindako alkoholemia-kontroletan **16 lagunek** eman zuten **positibo**

Getxoko Udaltzaingoak berriki aurkeztu duen urteko balantzeak ondorioztatzen duenez, pasa den urtean Getxon 2004an baino zirkulazio-istripu gutxiago egon ziren. Algortako eta Makaletako etorbideetan gertatu ziren istripu gehien eta egindako 10 alkoholemia-kontroletan 16 gidarik eman zuten positibo, aurreko urteko datuak alderatuz jaitsi egin da kopurua.

laz %7 egin zuen behera udalerrian gertatu ziren auto-istripuen kopuruak: 377 izan ziren, aurreko urtean baino 30 bat gutxiago. Ia 50 oinezko harrapatu zituzten (aurreko urtean baino 12 gehiago) eta ezbeharren ondorioz 224 zauritu egon ziren, (2004an 220). Hala ere, hildakoen zenbatekoa gutxitu egin zen, izan ere, 2005ean bakarria egon zen.

Trafikoko gunerik beltzenak herriko sarrera/irteerak izan ziren: Algortako etorbidea (39 istripu), Makaleta etorbidea (27), Mimenagako biribilgunea (15), Salsidu (13) eta ostein datoz hamabina istripugaz Arriluze, Maidagan, Sarrikobaso eta Telletxe. 2004ko gune beltzak alderatuz gero, aldaketa nabariak antzematen dira, orduan Mimenaga, Makaleta, Arriluze (23) eta Zugazarte (21) izan ziren trafikoko arazo gehien sortu ziren inguruak. Hala eta guztiz ere, Getxoko alkate Iñaki Zarraok azaldu zuenez, "iazko gune beltz horietan oraindik ez dago autoen abiadura moteltzeko jartzen diren elementurik; Udala horiek jartzea pentsatzen dabil, istripuen kopurua murrizteko; Algortako etorbidean erraza da egiasmo hori aurre-



laz 39 auto-istripu egon ziren Algortako etorbidean

na eramatea bidea Udalarena delako, baina Makaletakoa Aldundiagaz jorratu beharko dugu".

«Istripuen arrazoi ohikoenak: zirkulazio arauen haustea eta gidarien arduragabekeriak»

Istripu motari dagokionez, gehienak ibilgailuen arteko talkaren ondorioz jazo ziren, eta gehiegizko abidurak eragindakoak 16 izan ziren. Ezbeharrek gertatzeko arrazoen artean ohikoenak zirkulazio arauen haustea eta gidarien arduragabekeriak izan ziren.

Alkoholemia probatan 16 positibo

Udaltzaingoak jasotako salaketa kopuruek ere behera egin zuten: 767 (2004an 1.038). Horien artean lapurreta txikien gainean

egindakoak 199 izan ziren, 215 kalte ezberdinetakoak eta 101 ibilgailuen barruko lapurretak. Bestalde, Udaltzaingoak eta Erztzaintzak 2005ean 10 alkoholemia-kontrol egin zituzten eta 16 gidarik eman zuten positibo. Aurreko urtean kanpaina berezia egon zen: 46 kontrol egin ziren eta 132 positibo zenbatu ziren. Beraz, datuak alderatuz 2005ean positiboen batz bestekoa txikiagoa izan zen. m

Datu batzuk

- 377 zirkulazio-istripu gertatu ziren.
- 224 zauritu izan ziren.
- 16 istripu gehiegizko abiadurak eraginda.
- Algortako etorbidean 39 istripu.
- Makaletako etorbidean 27 istripu.
- 767 salaketa egin ziren.

II. Berdintasun plana 2006-2009 bitarteko emakumezkoen eta gizonezkoen arteko berdintasunerako helburuak



Martxoaren 8a ospatzeko emakumeek egindako irudia

Getxoko udalak pasa den urrian onartu zuen Emakumeen eta Gizonezkoen Berdintasunerako II. Plana. Planaren helburuen eta konpromisoen berri ematen duen liru-ruxkaren mila ale banatu dituzte oraintsu herriko erakunde eta elkarten artean.

Aurten hasi eta hurrengo 3 urtetan garatuko den Plana 10 ekintza alorretan banatzen da eta 148 ekimen aurreikusten ditu. 10 ekintza alorretan hurrengoak dira: Berdintasuna udal informazio eta kudeaketan; Baloreak eta berdintasuneko ekintzak transmititzea; Bizitza ekonomikoa, Konziliazioa eta ardurakidetzatza; Jabekuntza eta erabakiak hartzeko guneetan parte hartzea; Emakumeen kontrako bortizkeria; Kulturantzatasuna eta lankidetzatza, Hirigintza

eta ingurumena; Osasuna eta bizi kalitatea, eta Kultura eta kirola. Ostera, Gizarte Zerbitzuetako zinegotzi Iñaki Urkizak azaldu legez, "liburuxkan helburu orokorrak bakarrik adierazi dira, ekimen zehatzik ez, izkribu astun eta nahasiegia ez egitearren; horrez gainera, urtez urteko jarraipena egingo denek ekimenak alda daitezke". Alabaina, dagoeneko martxan dauden hainbat ekimen aipatu zituen Urkizak, I. Planetik martxan ipinitakoak batzuk: Emakumeen Jabekuntza Eskola, ikastaroak, genero indarkeriaren aurkako kanpainak, udaltzainen eta ertzaintzako ikastaro berriak andrazkoen kontrako tratatu txarren auzietan zelan jardun jakiteko, etab. m

Plan osoa irakurtzeko: www.getxo.net

GIZARTE ZERBITZUETAKO BULEGO BERRIA ERROMON

Gobelaurre eta Gorbea Mendi kaleen artean dagoen udal egoitza zaharberri eta bertan lekutuko dute Gizarte Zerbitzuen bulego berria. 60.000 euroko aurrekontua dauka egitasmoak eta udal arduradunek uda hasierarako espero dute egoitza berriko lanak amaitzea. Orain arte Nagusien Etxetik eskaintzen zen zerbitzua, eta orain zaharberriko den gunean boluntariotza elkarteak zeuden, baina horiek Berritzegunea zegoen bulegora aldatu dituzte. Bulego berriak 234 metro koadro edukiko ditu.

IRAILETIK AURRERA TAO SISTEMAK BALDINTZA BERRIAK EDUKIKO DITU

Orain dela gutxi onartu ditu Getxoko Udaltzako TAOren ordutegi eta ordaintzeko modu berriak. Aldaketa irailetik aurrera jarriko dute indarrean: ordu erdi beranduago hasiko da goizetan, ondorioz hurrengo ordutegia edukiko du: 09:30-14:00 eta 16:00-20:00. Bestalde, zenbatekoa txartelaz ordaindu ahal izango da eta isuna edukiz gero momentuan ordaintzeko aukera emango dute parkimetroek. Aparkamentu mugatua kontrolatzeko zerbitzua esleitzeko lehiaketa plazaratuko du Udalak eta aipatutako baldintzak eta hurrengoak bete beharko ditu ardura hartzen duen enpresak: behargin berrien erdiek andrazkoak izan beharko dute, euskara ere jakin beharko dute eta kontratazioan Getxoko langabetuek izango dute lehentasuna.

ZARAMA ETA IGERITOKIEN TASEN AURKA 9.121 SINADURA BATU DITUZTE

Otsaila amaieran udal erregistroan aurkeztutako 900 bat sinadurak dagoeneko 9.121 dira Udala Tasen Gehiegizko Igoeren Aurkako Getxoztarrak ekimen herritarrek batu dituen izenpetzeak. Zarama tasei ezarri zaion %86ko igoeraren kontra eta udal igerilekuetara sartzeko euro bateko tasa bertan behera uztea eskatzen dute sinatzaileek eta era berean udal tasen jaitzieraren alde agertzen dira.

Taberna Berri
Sarrikobaso 4 - ALGORTA
Tf.: 944 306 493

OSABIDE HORTZ KLINIKA
Arantza Etxebarria

- Odontologia orokor-
- na
- Ortodontzia
- Periodontzia

Bidebarri 27, behe eskuina
ALGORTA
94 430 76 96

VIEJO

kopak eta giro jatorria

Alangobarr, 4 Tel. 94 460 30 03
ALGORTA

Etorkin

getxoztarrek **euskara ikastaroek** jarraipena izatea eskatu dute

Urrian hasi eta otsailan amaitu ziren AISako ikastaroetan 46 etorkin getxoztarrek parte hartu zuten. Eurretako 31 ikaslek izenpetutako eskaeraren bidez euskara ikasten jarraitzeko beharra adierazi zuten, datorren ikasturtean euskaltegiatiko talde arruntetan behar bezala integratu ahal izateko. Hala, eskaera ontzat eman dute antolatzaileek Udaleko Euskara eta Immigrazio Zerbitzuek, eta eskolak edo ikastaroa ekainera arte luzatuko dituzte. Etorkinentzat diseinatu diren AISA ikastaro hauen helburua eguneroko egoerak ulertzeko oinarritzko zenbait gauza euskaraz esaten ikastea da. Getxo izan da AISako ikastaldetako gehien osatu dituen udalerrria: lau talde sortu dira bi udal euskaltegian eta beste bi AEK-ko Lauaxeta euskaltegian. Oraindik ere badago ikastaroetan parte hartzeko aukera eta horretarako aipatutako bi euskaltegiatara hurbiltzea baino ez dute etorkin getxoztarrek. m

Informazio gehiago:
94 464 62 99 (Udal Euskaltegia)
94 430 47 34 (Lauaxeta Euskaltegia)

EUSKARA SUSTATZEKO DIRULAGUNTZEN ESKAERA EGITEKO EPEA ZABALIK

Euskara sustatzeko helburuagaz gauzatzen diren jardueretarako diru-laguntzak emateko deialdia martxoan ipiniko du laster Udaleko Euskara Zerbitzuek. Egitasmoak aurkezteko epea hilaren 20an hasi eta 31n amaituko da. Euskara Zerbitzuek jakinarazi dutenez, hurrengoak dira, besteak beste, dirulaguntzagai diren jarduerak: Euskararen erabilera sustatzen duten jarduerak edo egitarauak (arreta berezia egingo zaie haur eta gazteei zuzendutakoak); teknologia berrietan euskararen erabilera sustatzen duten proiektuak; Getxoko euskararen ondarea jaso, zaindu edo berreskuratu nahi dutenei (kantua, bertsoak, euskalkia...); euskarazko irakurzaletasuna eta literatura zabaltzea helburu duten egitasmoak, etab.

Informazio gehiago: 94 466 00 10/11

Pedro Blazquez > Zabalketa GKEko kidea

“Laguntza eskoletara etortzea gazteek eurek hartutako erabakia da”



Eskolak hartzen dabilten ikasle etorkin batzuk. Informazio gehiago: 94 464 36 94:

Orain dela 3 urte ipini zuen martxoan Zabalketa GKEak etorkinei laguntza eskolak eskaintzeko programa. Hastapenetan Getxo I institutuagaz batera ekin zioten bidetari eta aurten Fadura institutura zabaldu dute eskaintza. Zabalketako programaren bultzatzaile Pedro Blazquezek azaldu du programak zertan datzan.

—Zeintzuk dira programaren helburuak?

—Institutuak hainbatetan jo zuten Udalerria gazteei laguntza eskolak emateko laguntza eske, gazteentzat, gehienak etorkinak badira ere ez dute zergatik denek izan. Eta Udalerria guri proposatu zigun egitasmoa aurrera eramatea. Getxo I institutuan ipini genuen martxoan, eta lehenengo egitekoa bertako irakasleak batzea izan zen betebeharrak zeintzuk ziren zehazteko. Orduan ikasleen beharren arabera eskolak eskaintzen hasi ginen, hala aurreneko 2 urteetan ingelesa eta matematika eskolak eman genituen, ostera, aurten ingelesa. Baina, berbarako, euskara eskolak beharko balituzte bada emango genituzke. Hasieran 9 bat ikasle izan genituen, iaz 8 bat eta aurten 3 dabilta. Batez ere DBHko 1. eta 2. mailako-

ei zuzendutako eskolak ematen ditugu. Gainera, aurten Fadura institutura ere zabaldu dugu eskaintza, DBHko 3. mailara ere bai. Faduran, adibidez, bertako 2 ikaslek ingeles eskolak ematen dituzte eta guk beste batzuk. Aipu berezia merezi dute irakasleek eta boluntarioek. Irakasleek egin zuten proposamena, eurek lagundu dute nondik norakoak zehazten eta haiek prestatu dute materiala. Gero, ezin ahaztu boluntarioak: 4 bat gabilta, (Tato Astorki, Jose Luis Uriarte...); gehienak gazteak, asko ikasleak.

—Beste institutukoentzat aukera badago?

—Egin daiteke baina gaxagoa da: laguntza garrantzitsuena irakasleena da eta euren partai-

«Ikasleen beharren eta eskariaren arabera zabaldu dute laguntza eskolak»

detzagaz batera egin behar dugu. Aukera zabala daukagu, baina asko hurreratu balira pausu berriak eman beharko genituzke. Bestalde, kontuan hartu gazteek eurek hala gura eta erabaki dutelako etorri behar dutela eskoletara; etortzea eta ikasteko konpromisoa euren da, eta hori eskoletan igartzen da. m

Martxoaren 21a gogoan

Arrazakeria Desagerrarazteko Nazioarteko Eguna



Arrazakeria Desagerrarazteko Eguneko kartela. Informazio gehiago: 94 466 01 30

Nazio Batuen Erakundeak martxoaren 21a aukeratu zuen arrazakeriaren kontra lan egiteko konpromisoa urtero-urtero berritzeko eguna legez. Izan ere, 1960ko martxoaren 21ean poliziak Sharpvilleko (Hegoafrika) manifestazio baketsu baten kontra tiro egin zuen, agerraldia apatheideko igarotze bainemaren legeen kontrakoa zen.

Getxoko udaleko Immigrazio eta Kulturantzaren arloak Arrazakeria Desagerrarazteko Nazioarteko Eguna gogoratzeko hainbat ekimen antolatu ditu. Alde batetik,

film bi eskainiko ditu Getxo Antzokian: *El tren de la memoria* (Zinekluba, hilak 22, 19:30) eta *Le grand voyage* (Cinema Paradiso, hilak 24, 22:00) eta horregaz batera *Amigo no gima* film laburra ere pantailaratuiko du. Beste alde batetik, kultur arteko topaketetarako lantegiak egingo ditu: kultura arabiar eta musulmanekoa (hilak 21, 18:00-20:00), ekialdeko ijito dantza (hilak 24, 18:00-20:00) eta Filipinetako dantzak eta haur jolasak (hilak 23, 18:00-20:00). Lantegiok doakoak dira. m

DIDAK
hamilton
IDIOMAS

Ingelesa, Frantsesa eta Alemana

- Taldeak, enpresak eta partikularrak
- Eskolaz kanpoko ekintzak
- Maila guztiak
- Ingelesa 3 urteik aurrera
- Talde txikiak
- Ingalaterran egonaldiak

Dr. Landa, 6 / 48600 Sopela.
Tel: 94 676 30 12
didakhamilton@euskalnet.net

VASCASA inmobilia-ria

Vascasa Sopelanak irabazien %3 bezeroak aukeratzen duen Gobernu Kanpoko Erakundeari ematen.

- Zure etxebizitzaren dohainezko balorazioa
- Vascredit finantziarioa, zure neurria
- Zure salerosketen kudeaketa

Eleizalde kalea z/g. 48600 Sopelana
t.: 94 676 37 08 - fax: 94 676 50 18 - sope-

Haurren inauteriak

Otsailaren 28an haurren **mozorro lehiaketa** egin zen

Gabon arbolak, erlojuak, trapuzko panpinak, lorontziak eta ijitoak izan ziren mozorrorik ikusgarrienak. Horiek izan ziren behintzat, Leioako XIII. Haurren Mozorro Lehiaketan saria jaso zutenak otsailaren 28an. Aurretik, otsailaren 24an, nagusiek desfilatu zuten Nagusien XV Mozorro Lehiaketan parte hartzeko. Bi egunetan adin guztiei begira jarduera dibertigarriak egon ziren: jolas-parkea, tailerrak, txokolatada, fanfarreak, animazio taldeak, erromeria... Aratuste eguna magikoa ei da, gura duguna izan gaitzkeen eguna. Halaxe izan zen.



Kafe Huts antzerki elkarteak

“Etxeko bakartasunetik atera eta besteekin harremanetan jartzeko balio digu antzerkiak”



Orain dela bost urte sortu zuten taldea

Lamiakoko Kafe Huts Elkarteak *Emakumeentzako polizia-etxe berezia* antzerki arrakastatsua eskaini zuen Kultur Leioan martxoaren 2an. Taldeko bozeramaile Manoli Gallardok azaldu digunez, lanaren ekoizte prozesu osoa euren esku egon da. “Antzerki lana inakurri, gustukoa zaiguna aukeratu, pertsonaiak banatu, entseguekin hasi, jantziak eta eszenatokia sortu, antzerki estreinaldiari data jarri eta gonbidapenak zein kartelak banatu”. Meritua badu, izan ere, aktore eta aktorea hauek -22tik 20 andrazkoak dira- ez datoz antzerki eskolatik, Lamiako Eskola Publikoko ikasleen gurasoak dira, amak batez ere.

Orain urte batzuk Eskolako Klaustroak auzoaren eta eskolaren arteko harremana sendotzeko eta komunitatearen garapenerako

proiektua bultzatu zuen. Bertan, besteak beste, gurasoentzat hainbat jarduera eta ikastaro antolatzen ziren. Manolik lehen urrats haiek gogoratu dizkigu. “*Hasieran, kafea hartzeko (hortik elkartearen izena) eta prentzaz berba egiteko elkartzaren ginen, eta laster zenbait ikastaro eta tailer egiteari ekin genion*”. Jarduera horietako bat antzerki tailerra izan zen. Tailerrari esker antzerkirako zaletasuna zabaldu zen partaideen artean eta 2001ean Kafe Huts Elkarteak sortu zuten. “*Tailerrari jarnipena emateko aukera ikusi genuen eta, zergatik ez, gure lanak beste lekuetan erakutsi*”. Manolik atearak irekita daudela dio: “*Batez ere emakumeak gara; besteekin harreman berriak sortzeko gogoz gauden emakumeak, etxeko bakartasunetik atera nahi dugun emakumeak*”.

IGOGAILUA LAMIAKO ETA TXORIERRI AUZOAK LOTZEKO

Lamiako eta Txorierrri auzoak lotuko dituen igogailua eraikitzeke lehen urratsa eman dute. Otsailaren 23an egindako Osoko Bilkuran Hirigintza Antolamendurako Plan Orokorra aldatzea onartu zuen Leioako Udaltzaren Auzotarren eskaera izan da aldaketa bultzatu duena. Izan ere, 50 metroko aldapa igo behar da Lamiakotik Txorierrira joateko. Beharrak 2007. urtean hasiko dira eta bi milioi euroko kostua Udalak berak ordainduko du.

MIKEL URDANGARIN MARTXOAREN 31N KULTUR LEIOAN

Martxoaren 31n egun seinatua izango da euskal musika maite dutenentzat. Izan ere, egun horretan tradizioa, folklorea eta berritasuna uztartzea lortu duen kantautoreak kontzertua eskainiko du Kultur Leioan. Mikel Urdangarin, Bilbon jaiotako zornotzarrak, bere azken lana *Dana* kaleratu du orain gutxi. Bertsolari izandako kantariak produkzio oparoa izan du orain arte; besteren artean, *Bar Puerto*, *Badira Hiru Aste* eta *Isplue* diskoak kaleratu ditu. Martxoaren 31n Kultur Leioan 20:30ean (Sarrera 10 euro).

LEIOA MENDI TALDEA URKILLARA

Hamabostero egiten duen bezala Leioa Mendi Taldeak datorren martxoaren 26rako mendiko txangoa antolatu du. Oraingoan, mendizale leioztarrak Urkilla mendiserran gora eta behera ibiliko dira. Arabako Gordoatik, Pin Pil gailurretik igaroz, Arantzazuko Monastegirainoko zeharkaldia izango da. Irteera orduak: Pinuetan, 7:50 eta Sakonetan, 8:00. Izena emateko 689 72 19 17 telefonoa deitu behar da, astelehen eta ostegunetan iluntzeko zazpiak eta bederatzia bitartean.



- 0 eta 16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskalduna.
- Ingelera 4 urtetik aurrera.
- Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia (sukaldea bertan), merienda.
- Eskolaz kanpoko ekintzak: musika, gitara, adierazpena, saskibaloia, eskupilota, panderoa, bertsolaritza, euskal dantzak...
- Frontoia, futbito zelai estaliak, berdeguneak...

Artatza Auzoa 84, LEIOA - Tlf: 94.464.23.64 / 94.464.33.07
e-mail: leioa@ikastola.net - www.ikastola.net/ikasweb/leioa

udondo
taberna
eguneko menua eta afariak

Lehendakari Agirre,2
T: 94 463 00 45 - LEIOA

Euskara biziberritzeko plana

2006ko plan estrategikoa aurkeztu du Udalak Erandioko Euskararen Aholku Batzordeak antolatutako ekitaldi irekian

Herritarren ekarpenez eta Eusko Jaurlaritzaren zein Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzaz, euskara udalerrian bultzatzeko plana eratu du Erandioko Euskararen Aholku Batzordeak. Egitasmoaren helburu nagusiak bi dira: euskaraz bizi gura duten herritarrek hori egiteko modua izan dezaten neurriak hartzea eta euskara indartzea maila pertsonalean, sozialean eta ofizialean.

Horretarako, hainbat ekintza antolatu dituzte hiru helburu estrategikori begira: transmisioa (irakaskuntza, euskalduntze-alfabetatzea eta familia); erabilera (administrazioa, teknologia berriak, kirola, lana, familia...) eta elikadura (kalitatea, liburugintza, hedabideak...).

Hartara, esparru bakoitzerako hainbat ekimen diseinatu dituzte batzordeko kideek. Besteak beste, haurrak zein gazteak D eremuan matrikulatzeko kanpainia jarri dute martxan eta gurasoei zein ikasleei informazio orriak igorriko dizkiete; umeei euskaraz irakur dezaten gurasoentzako gida batzuk sortu dituzte; dendarietara errotuluak euskaraz jartzeko diru-laguntzak eskainiko dizkiete; eta etorkinentzako euskara ikastaroak antolatu dituzte.

Horrez gain, euskararen kalitatea zainitzeko neurriak hartuko dituzte; horretarako, hizkuntza-paisajea txukundu eta berbazko euskal kultur produkzioak landuko dituzte.



dendarietara errotuluak euskaraz jartzeko diru-laguntzak eskainiko dizkiete

Euskararen Aholku Batzordea

Udaleko beharginen gain, udalerrian hizkuntza normalizazioan eragiten duten esparruetan esanguratsuak diren andra-gizonak osatzen dute batzordea eta proiektura ekarpen berriak egitea da euren egitekoa. m

«Euskaraz bizitzeko aukera eskaini gura du plan estrategikoa»

2006rako asmoak

- **Transmisioa.** Eskoletan egitarau zehatzak eratu, eskolaz kanpoko ekintzetan euskara batzordeak sortu eta familian euskara lehen hizkuntza bezala ziurtatu.
- **Erabilera.** Euskara zerbitzu-hizkuntza eta lanerako tresna bezala bermatu.
- **Elikadura.** Hizkuntza-paisajea txukundu, euskal kultur produkzioak landu, irakurzaletasuna bultzatu eta administrazio guztien arteko lotura sendotu.

Kanpamartxo 2006

Euskara eta euskal kultura bultzatzeko **erromeria** egingo dute Goierriko San Kristobalen apirilaren 9an



Argazkian, iazko Kanpamartxo

Kanpamartxo ospakizuna orain dela 10 urte baino gehiago berreskuratu zuen Berbots Erandion Euskaraz taldeak. Urtero, agur esaten diote martxoari Udalerriko auzoren batean eta, aurten, jorrailaren 9an, Goierriko San Kristobal auzoaren txanda izango da.

Jatorrizko jaiak Garizuma aurretik ospatzen bazen ere, eguraldiagatik, Aste Santua hasi baino lehen egitea erabaki zuten egungo antolatzaileek.

Antzinean, etxean zeukatena hartu eta zelaira joaten ziren familiak merienda egitera. Abiapuntu hori hartuta, euskara eta euskal kultura bultzatzeko aukera ikusi zuten Berbotsekoek eta euskararen inguruan mugitzen ziren herriko taldeen laguntzaz ospa-

kizuna berpizteari ekin zioten.

Gaur egun, herriko koadrila bakoitzak bazkaria prestatu eta kalean ematen du egun osoa. Halere, kanpokoak ere badu lekurik; izan ere, herri bazkaria prestatu dute jaiak gozatu nahi duten guztientzat.

Halaber, Erandioko auzoen arteko harremana indartzeko aukera paregabea da jorrailaren 9koa, hura antolatzeko auzo ezberdinetako taldeek laguntzen dute-eta.

Egitaraua urtero antzekoa izaten da eta adin guztientzako ekintzak jarriko dituzte martxan: bertsolariak, dantzaldia, antzerkia, umeentzako jolasak, euskal dantza... Han izango dira, besteak beste, Kepa Arrizabalaga eta Roberto Etxebarria trikitilariak eta Patxi, Bat, Bi eta Hiru musika taldea. m

XABIER AMURIZA ETA JON MAIA MARTXOAREN 27AN JOSU MURUETAN

Mende baten aldarriak izeneko ikuskizuna eskainiko dute Amurizak eta Maiak hilaren 27an, astelehena, 19:30ean Josu Muruetan. Kantatzeko ez eze, historia kontatzeko ere balio dute bertsoek. Asmo horrekin XX. mendeko giro politiko eta soziala (gerrateak, gosetea, emirazioa, frankismoa...) deskribatzen duten aleak aukeratu dituzte Amurizak eta Maiak. Besteak beste, hautatutako bertsoak honakoak dira: Agirre, Arrese-Beitia, Basarri, Enbeita, Lazkao Txiki... Ahozko literaturaren altzorra jendearen belarrietara heltzea helburu duen ikuskizun hau Berbots Erandion Euskaraz taldearen eskutik datorkigu herrira.

EUSKARAZKO FILM LABURRAK HILAREN 21EAN

Topagunea Euskara Elkarten Federazioak martxan ipini du III. Euskarazko Film Laburren Zirkuitua. Hego Euskal Herriko 20 herritan antolatu dituzte emanaldiak eta Erandio da horietako bat, gure eskualdean bakarra. Euskara elkarten beste ekimen kultural bat da Zirkuitua, tokian tokiko antolaketa lana euskara elkarteek egiten dute, kasu honetan Berbots Erandio Euskaraz taldeak. Bost filmek osatzen dute aurtengo kartela: *Txotx eta 40 ezetz* (Asier Altuna, Telmo Esnal), *Sarabe* (Beatriz de la Vega), *Haragia* (Begona Vicario) eta *Hauspo soina* (Inaz Fernandez). Hitzordua, martxoaren 21ean, martitzena (20:00), Josu Murueta kultur etxean.

GARABIAK 252 IBILGAILU ERAMAN ZITUEN IAZ

2005ean, Erandioko udal garabiak 743 alditan hartu behar izan zuen esku eta 2004an baino 252 ibilgailu gehiago eraman zituen. Joan den urtean, guztira, 400 salaketa jarri zituzten trafiko arauak urratzeagatik eta 144 istripu gertatu ziren; 71 gidarien arreata faltagatik edo akatsengatik.

Arasa
Sukalde eta Komunitararako Ekipamendu Osoa
Barnekaldeen zaharberritzeak eta dekorazioa
Sarrikobaso, 44 • 48990 Algorta
Tel/Fax: 94 430 11 91

Basolanak
• Zuhaitzen landaketa
• Podak
• Itxierak
• Garbiketak
• Tratamendu fitosanitarioak
Lorategien zainketa
DEITU!
T. 94 467 17 13
F. 94 467 42 41
ERANDIO (Bizkaia)
Mobila
Asier: 629 411 838
e-posta: basolanak@terra.es

ARLAN
Avanzada errepidea, 7 / 48950 ERANDIO (Bizkaia)
Tel.: 94 471 12 44 / www.arlan-ser.com / arlan@arlan.biz

UDALEKO INFORMAZIOA ETA EKITALDIEN BERRI SAKELAKOAN

Udal informazioa eta antolatzen diren ekintzen berri sakelakoan jasotzeko zerbitzua eskaintzen du Sopelako udalak. Orain dela gutxi martxan jarritako egitasmoak berriak euskaraz zein gazteleraz jasotzeko aukera ematen du. Sakelakoan herriko albisteak jaso gura badituzu web orrian (www.sopelana.net) egin dezakezu eskaera edota Turismo Bulegora hurbilduz (datu orokor batzuk eman behar dituzu zerbitzuko harpidedun izateko).

Informazio gehiago: 94 406 55 19

HILAREN 19AN EGINGO DA IV. HERRI LASTERKETA

Munarri Atletismo taldeak antolatzen duen IV. Herri Lasterketa martxoaren 19an egingo da, goizeko 10:00etatik aurrera. Ohi legez, adin eta maila desberdinen arabera korrikariak ordutegi eta ibilaldi desberdinak edukiko dituzte. Txikienek 10:00etan dute irteera ordua eta nagusienek 11:45ean, bitartean izango dute zita gainontzeko mailakoek. Irteera eta helmuga Jauregizar plazan egongo dira (Akilino Arriola kalea). Izena emateko epea lasterketa baino bi egun lehenago amaituko da, eta esaterako hurrengo bideetatik egin daiteke:

Harremanetarako: 94 406 55 19
munarriat@hispanista.com



Sopela gozatzeko Turismoko gida liburua plazaratu du Udalak lau hizkuntzatan



Udalerriko mapa eta bestelako informazioa ere batzen ditu. Informazio gehiago: 94 406 55 19

Euskaraz eta gazteleraz, baina baita ingelesez eta frantsesez ere azaltzen dituzte Sopelako udalak argitaratu dituen turismoko gida liburuek herriko txokorik erakargarrienak. 5.000 ale prestatu dituzte eta udaletxeko Turismo Bulegoan daude eskuragarri.

Udalerriko argazki esanguratsuak batu eta gune erretratagarriak azaltzen ditu gida liburua: ondare historiko, artistiko, ibilbideak, berdeguneak... Irudiak Iker Basterretxearenak dira. Berdeguneen artean Iturrieta eta Fernando Ansoleaga parkeak eta Urkoko makaldia azalarazten ditu. Arkitekturari dagokionez, San Pedro eliza (XVI. mendea), Karmengo basiliza (Larrabasterra), San An-

dres basiliza (Plentziarako bidean, XIII. mendea) eta Santa Mariñeko haitzetan bertan eraikitako San Andres basiliza aipatzen ditu. Eskulturei buruz, VIII. mendean lurraren emankortasuna lortzeko sakrifizioak egiten ziren Fraidemendiko Munarri agertzen du, edota garaikideagoak, adibidez, AC-DC taldeko gitarra jolearena. Ostera, proposaturiko ibilbideak, besteak beste, hauek dira: Urko-Munamikolanda (aztarna megalikoak ezagutzeko), Sopela-Aixerrota (Getxo), Sopela-Plentzia, etab.

Eta esan beharrik ez dago Sopelako harritxiek ere berebiziko lekua dutela: Barinatxe, Arrietara-Atxairibil eta Mefiakoz. ^m

Esaera Zaharren txapelketa

13.ean "hamabi ofizio, hamahiru miseria", baina aurten ere "ezina, ekinez egina"



AEK-ko kidea da Martikorena. Harremanetarako: 94 676 48 76 edo www.aek.net

Martxoaren 27an amaitzen da Sopelako Esaera Zaharren Txapelketan izena emateko epea eta lehia apirilaren 1ean, zapatua, egingo da. Txapelketak zertan datzan ez dakienak beki: partehartzaileek esaera zaharretan oinarritutako bertsoak entzun eta bertsoei dagokien esaerak zeintzuk diren igarri behar dituztela. Taldeka (16 urtetik gorako 2-4 lagun) lehiatzen dira, talde bakoitzak 100 esaeren zerrenda jakin behar du eta 10 euro ordaindu parte hartzeko. 3 zatitan banatzen da eguna: eguerdian Sopelan tabenatarik taberna ibiliko dira, Algortako Bertsolari Eskolako bertsoen esaerak igarri guran; ostean, herri bazkaria (15 euro) antolatu dute Ander Deuna ikastolan; eta azkenik finala jokatu da. Finalan, Jon Maiak eta Oihane Perek ipiniko dituzte bertsoak eta epaile Acerotar anaiak surflariak jardungo dute.

Sopelako Nikola Euskategiak antolatzen duen txapelketaren 13. edizioa da aurtengoa eta Aitor Fernandez de Martikorena antola-

tzaileak azaldu digun legez, "13.a dela-eta esaeren zerrendan bat ipini genuen apur bat ironikoa: "Hamabi ofizio, hamahiru miseria". Bestalde, esaera zaharren sasoiak ere jardun du; eskolan, euskaltegian... ikasi egiten ditugulako, bai, baina erabili: "Erabilera nabiko murrizta da; esaerak erabili erabiltzen dira, baina joera dago azken urteotan endarazkoak erabiltzeko ala itzulpenak egiteko... penagarria da, altxor hori euskaraz badaukagulako, erabili abal dina, hori da gure helburuetako bat". Horregatik parte hartzeko gonbitea luzatu du: "Kanpotik ikusita beldurra eman dezake, hainbeste esaera ikasteak... baina ezagutzen duenak badaki, txapelketa baino jaialdia dela".

"Joera dago erdarazko esaerak ala itzulpenak erabiltzeko, penagarria da"

"Esaera zaharrik, egia handiak" eta "Zapatu alegriek dakar astelen tristie"; oraingoan gai izango al gara gezur bihurtzeko? Ahalegin gaitzen, behintzat. ^m

4 bide pinturak



Loroño 2 • Tlf/Fax 94 676 29 92 • SOPELA
Ituribarria 3 • Tlf: 94 442 01 55 • BILBO

01 SOPELNET S.L.

Jokoak sarean •
Txapelketak • Internet •
Txat • E-mail • Lanak •

ordenagailuen salmenta
zerbitzu tekniko
kontsumitzeko gaiak, zure

Zubigane, 5 - 48600 SOPELANA
e-mail: 01sopelnet@terra.es
www.geocities.com/sopelnet

☎ 94 676 00 62 - Fax: 94



- Hezkuntza integrala urte 1etik 18ra artekoa
- Irakaskuntza eta hezkuntza
- Informazioa eta partaidetza
- Eleaniztasuna
- Esperientzia eta berrikuntza

Gatzarrine z/g. Sopelana
Tfnoa.: 946760266 - Email: sopela@ikastola.net

moda gaztea
opariak

IRATI

Torreña 2, ALGORTA
T. : 94 491 12 71

Loteria
Sopela

Iparragirre 6, Sopela

**LAIKAK
Taberna**

Bentatxu, 2
48600 Sopela
Tlf. 94.6760328

ARRATSALDEKO EUSKARA IKASTAROA BERTAN BEHERA

Berangoko udalak martitzen eta eguenetan arratsaldeko ordutegian eskaini gura zuen gurasoentzako euskara ikastaroa ez du emango. Izan ere, gutxienez 8 pertsona behar zituzten ikastaroa aurrera eroateko eta 5ek bakarrik eman dute izena. Hala ere, Euskara Zerbitzutik azaldu dutenez datorren irailean berriro arratsaldeko euskara ikastaroaren eskaintza egingo dute. Dena dela, goizez ematen den ikastaroa martxan dago eta gura duenak lekua dauka bertan. Bi talde daude, bata oinarriko-oinarriko mailan eta bestea maila apur bat altuagoan. Martitzen eta eguenetan batzen dira 09:00etatik 11:30era.

Informazio gehiago: 94 668 00 08

LAS CRONICAS DE NARNIA GAZTELEKUAN

Las cronicas de Narnia filma ikusteko aukera emango du Berangoko Gaztelekuak. Hileko azken domekako ekitaldia izango da, hau da, martxoaren 26an ipini dute hitzordua, arratsaldeko 4:00etan Gaztelekuan. Andrew Adamsonen pantaila handira eroan duen abenturaz eta fantasiaz beteriko Narniaren munduagaz gozatu gura duenak beraz, badaki nora jo. Gutxi gorabehera ordu eta erdi pasatxo irauten du pelikulak.



Haur liburutegia zabalik dago
600 bat umeri emango die zerbitzua



Koldo Artolozaga liburutegiko arduraduna

Berangoko liburutegiak haurrei txoko bat egin die bere barruan. 3 urtetik gorako ume-txoentzat espartu bat bereizi dute liburutegian, Berangoeta kultur etxean; agian ez da erabakirik egokiena helduentzako gunean bertan haurren txokoa paratzea, baina behintzat, Berangoko txikienek dagoeneko badaukate euren lekua liburuen artean.

Liburuak adinaren eta gaiaren arabera sailkatzen dira: didaktikoak, marrazkidunak, literaturakoak... Liburutegiko arduradun Koldo Artolozagak azaldu legez, "gutxi gorabehera urteei begin 1.000 bat liburu daude". Udaletik adierazi dutenez, "zerbitzu hau eskaintzearen arazoia haurren hazkundeari erantzuteko da,

600 bat umerentzat onuragarria izango da eta hileroko liburu berriak osatuko da eskaintza".

Liburutegiko zerbitzuak erabiltzeko txartela egin behar dute berangoztaitek, eta kultur etxean bertan egin daiteke horren eskaera. Ordutegiari dagokionez hurrengo da: goizez 09:30-13:00 eta arratsaldez 4:30-8:30.

Bestalde, Liburutegiko arduradun Koldo Artolozagak gogoratu moduan, "txiki-entzatzat ludoteka zerbitzua aspaldi dago martxan eta bertan ipuin kontaketa etab. prestatzen dituzte". Horrez gain, apirilaren 2an, Haur eta Gazte Liburuaren Egunaren harira jardueraren bat antolatzeko asmoa badaukatela aurreratu du. m

Jose Antonio Cantalapiedra > Publigloboko arduraduna
"Globoagaz haizearen eta hodeien baruan zoaz, hegaldi lasai eta atsegina da"



Harremanetarako: 607 499 161 edo www.euskalnet.net/publiglobo

Publiglobo 1979an aieratu zuten Jose Antonio Cantalapiedrak eta bere familiak. "Globoen jarduna orain bi mende edo egindakoen ostean nahiko geldi egon zen 70. hamarkadara arte edo, ehun arinak asmatu ziren arte: zuntz artifizialak, nylona... Asko erraztu zuten lana; eginbeharreko ikastaroak bete eta jarduten lehenengoetakoak izan ginen". Plentziako bulegoetatik globo aerostatikoak egiten dute behar eta 3 eskaintza mota daukate: komertziala, hegaldiak edo paseoak eta airetik filmazioetarako garraioa.

Arlo komertzialean enpresen markadun globoak aieratzeaz edota markak ipintzeko globoak alokatzeaz arduratzen dira. Alabaina, deigarriagoa egin zaigu paseorako hegaldien alorra. "Ibilaldiak segurtasunagatik aeroportuetatik urruntxu egiten ditugu, adb.: Orduña, Arabako lautada, Mungia, Urdaibai... 1.000-1.500 metrona egiten dugu hegan eta baxu-baxu arbolen adaburuak ia ikutuz; ordu eta laurdeneko bidaia da, lurretik ibilgailu batek jarratzen gaitu eta prezioa 150 euro dira bakoitzeko (asegurua barne)".

azaldu du Cantalapiedrak. Garestia da baina baditu bere arrazoiak, "globoek bizi iraupen laburra daukate, urtean behin ehunaren egon-aztertu behar da, eta bota egiten dira zuloa egiteko arriskua sortu baino lehen". Beldur eta topikoaren gainean zera diosku: "Askok diote bertigoa daukatela eta gero gutxiengo txiki batek baino ez dauka, paseo lasai eta atsegina da, haize asko badabil ere ez duzu abiaduraren sensazioarik haizearen barruan zabiltzalako; egia da ezin duzula aurrekusi non hartuko

"Non lurreratuko duzun ez jakiteak ez du esan gura kontrol barik zoazela"

duzun luma, haizearen mende zoazelako, baina horrek ez du esan gura globoa kontrol barik doala, inola ere ez, zuk nahi duzun lekura erango zaituzten korronteak bilatu behar dituzu. Gainera, non lurreratuko zaren ez jakitea onura ere izan daiteke, abentura txiki bat bizitzeko aukera. Bestalde, haize eta hodeien barruan bidaiatzen duzu, paisaia ezagunak begi ezberdinakaz ikusteko aukera. paregabea da". m

cianoplan Reprografia

global printers

Vila de Plentzia 6. zbk
Artigu Goll - Getxo
Tlf. 944 649 087
944 648 691
<http://www.cianoplan.es>

Digitalizazio eta bektorizazio, automatikoa eta lagundua

- Imprimatze eta plano kopiak
- Karteak kolorez eta z/b
- Fotokopiat kolorez eta z/b
- Era desberdinetako koadernaketak
- Plastifikazioak
- Cd eta DVD grabaketak eta imprimaketak
- ermarkaketak



TXIBERRI
edantokia
frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ
T: 94 676 07 15

BASTARTENA

URDULIZ
Telefonoa: 940 761 120

Ajuria
taberna

Andrés Cortina 2
ALGORTA



SOLO

BASALBO BASERRIA

JATETXEA

TEL./FAX: 94 491 34 91

MARTITURRI ESTARTA 18
48993 ANDRA MARI - GETXO

basalbobaserria@yahoo.com

ARRANTZONTZIA IPINI DUTE TRIBIÑUKO BIRIBILGUNEAN

Gorlizko udalak Armintzako Santo Tomas kofradiako *Gure Ana Mari* arrantzontzia paratu du Tribiñu kaleko biribilgunean. Alejandro eta Rafael Madariaga arrantzale goliztarrek oparitu dute 1989an Olazidegi ontzioletan eraikitako itsasontzia. 2,5 arrain tona eroateko lekua dauka bizkarrean, 9 metroko luzera eta 3 metroko erruna dauka. Arduradunek adierazi dutenez: "Lekeitiotik Santoñaraino bidaiak egiten zituen eta 20 milia egiten zituen itsaso barrura lupi, atuntxiki, berdel edo itsas aingirak arrantzatzeko".

ANTZERKIA URDULIZEN APIRILAREN 1EAN

Urdulizko kultur etxeak *Mundu berri.nol?* antzerki lana antolatu du apirilaren 1erako, zapatua. Ikuskizuna kultur etxean bertan izango da eguerdiko 12:00etan.

UMEENTZAKO DOAKO LAGUNTZA ESKOLAK PLENTZIAN

Ikasleen Gela zerbitzuaren bitartez 6-12 urte bitarteko gaztetxoek irakaskuntza laguntza eskolak jaso ditzateke: hezkuntza zentroetan emandakoa hobeto ulertzeko, ikasteko... Doako zerbitzua euskaraz eskaintzen dute astelehenerik eta eguenera (17:00-19:00) Goñi Portalean.

Informazio gehiago: 94 677 55 41

URIBE KOSTAKO MANKOMUNITATEA

2.104.161 euroko aurrekontua, %12 egin du gora



Eskualdeko alkateak prentsaurrekoan

Berango, Sopela, Urduliz, Barrika, Lemoiz, Plentzia eta Gorlizek osatzen duten Uribe Kostako Mankomunitateak urte honetarako 2.104.161 euroko aurrekontua dauka. Pasa den urtekoagaz alderatuz gero %12,06 hazi da partida, 226.421 euro gehiago.

Gizarte-ongizateko arloa aurrekontuaren %65,7 bideratuko dute: ia 1.382.527 euro. Alor honetan iragarri dutenez Mankomunitateko Berdintasun arlo berria sortuko dute laster eta bertatik alkarregaz koordinatuko dituzte 7 udalerriek bakoitzaren Berdintasun

egitasmoak, ekimenak...

Beste zenbateko aipagarri bat, iaz baino 29.131 euro gehiago jasoko dituen, Eus-kara sailarena da: aurrekontu osoaren %15, ia 332.236 euro. Biziklapenerako kopuruak ere goradakada nabarmena jasoko du aurt-en, 65.931 euro gehiago, guztira 145.371 euro. Izan ere, orain dela hiru bat hilabete ipini zuten martxan erabilitako arropak eta olio biltzeko zerbitzu berria. Gainera, bali-teke aurrerantzean birziklatzeko paperon-tziak berriztatzea. m

Mar. 19 - Api. 2

Zuon ekitaldiak iragartzeko • Posta elektronikoa: uk@aldizkaria.biz • Tel.: 94 491 13 37

ERAKUSKETAK

GETXO

► **Rafa Villaren kubismo eta futurismo lanak.** Erromoko kultur etxea. Martxoaren 29ra arte.
► **Angeles Castilloren olioak.** Erromoko erakusketa aretoa. Martxoak 31-Apirilak 12.

LEIOA

► **Egin ezazu gutzia gizatiarrago.** Vicente Ferrer Fundazioa. Kultur Leioa. Martxoaren 26ra arte.

BERANGO

► **Kuadroak. Antonio Elozegi eta Olaia Artxeren eskutik.** Berangoeta kultur etxea. Martxoaren 26ra arte.

PLENTZIA

► **III. Argazki lehiaketaren erakusketa "ARALDI".** Goñi Portal Kulturala. Martxoaren 31ra arte.

ZINEMA

GETXO

► **Charlie y la fabrica de chocolate.** Haur Zinea. Getxo Antzokia. Martxoak 19, domeka. 12:00, 17:00 eta 19:00. Sarrera: 2 euro.
► **El tren de la memoria.** Zine-Kluba. Martxoak 22, eguaztena. 19:30. Sarrera: 2,80 euro.
► **El largo viaje.** Eta *Amigo, no gima* film laburra. Cinema Paradiso. Azpitteludun jatorrizko bertsioan. Getxo Antzokia. Martxoak 24, barikua. 22:00. Sarrera: 2,80 euro.

► **Potter y el caliz de fuego.** Haur Zinea. Getxo Antzokia. Martxoak 26, domeka. 12:00, 17:00 eta 19:00.
► **El jardinero fiel.** Zine-Kluba. Getxo Antzokia. Martxoak 29, eguaztena. 19:30.
► **Mach Point.** Cinema Paradiso. Azpitteludun jatorrizko bertsioan. Getxo Antzokia. Martxoak 31, barikua. 22:00.

Antzokia. Martxoak 31, barikua. 22:00.

LEIOA

► **Una historia de violencia.** Auditorium. Martxoak 19, domeka eta 20, astelehena. 20:00.
► **Rolo eta ilarraren sekretua.** Euskarazko Haur zinea. Kultur Leioa. Martxoak 19, domeka. 12:00 eta 17:00. Sarrera: 3 euro.
► **Annie Hall.** Perseo zineforuma. Kultur Leioa. Martxoak 21, martitzena. 20:00. Sarrera: 2 euro.
► **Manuale d'amore.** Zine komertziala. Kultur Leioa.

Martxoak 25 (19:00 eta 22:00) eta 26 (20:00). Sarrera: 4 euro.

► **12 fuera de casa.** Haur zinea. Kultur Leioa. Martxoak 26, domeka. 12:00 eta 17:00. Sarrera: 3 euro.
► **Manhattan.** Perseo zineforuma. Kultur Leioa. Martxoak 28, martitzena. 20:00. Sarrera: 2 euro.

BERANGO

► **Las cronicas de Narnia.** Berangoeta kultur etxean. Martxoak 26, domeka. 16:00.



► Irakurzaleen Txokoa

Unai Elorriagagaz berbetan Algotan

Martxan dago berriro Irakurzaleen Txokoa, euskaldunok eta gure literaturak bat egiten dugun plaza. Denboralditxo bat irakurzaleak umezurtz utzi ostean, aspaldiko partez idazle gurasoen altzo beroan liburuakaz gozamen hartzeko aukera eskaintzen digute. Lehenengo ekitaldirako aukeran aitabitxirik egokiena hautatu dute: Unai Elorriaga. Algotakoak plazaratu duen *Vredaman* azken liburua izango du hizpide, eta seguruenik beste hamaika kontu ere azalduko direla mahai gainean... Ongi etorri, beraz, Irakurzaleen Txokoa!

• **Non:** Aldai Patronatua • **Noiz:** martxoak 29, eguaztena • **Ordua:** 20:00

PLENTZIA

► **Batalla en el cielo.** Helduen zinea. Goñi Portal Kulturala. Martxoak 24, barikua. 22:15.
► **Soñando soñando triunfe patinando.** Gazte zinea. Goñi Portal Kulturala. Martxoak 25, zapatua. 18:00.

GORLIZ

► **Charlie y la fabrica de chocolate.** Udal Erakusgela. Martxoak 19, domeka. 17:00.

ANTZERKIA

GETXO

► **La alumnia.** Getxo Antzokia. Martxoak 25. 20:00.

LEIOA

► **Pisa la raya.** Pikor Teatroa. Kultur Leioako Auditoriuma. Martxoak 22, eguaztena. 20:00.

URDULIZ

► **Misterioak.** Ipuin kontaketa. Kultur Etxea. Martxoak 25, zapatua. 12:00.

BESTEAK

GETXO

► **Emakumeak Musikan.** Kontzertua. Areetako Andres Isasi Musika Eskola. Martxoak 25, barikua. 20:00.

LEIOA

► **Babia.** Dantza zirkuitua 06. Kultur Leioako Auditoriuma. Martxoak 23, eguena. 20:00.
► **Delicado abismo.** Dantza zirkuitua 06. Kultur Leioako Auditoriuma. Martxoak 30, eguena. 20:00.
► **Aste Osasungarria.** Hitzaldia. Kultur Leioa. Martxoak 27-30. 20:00.
► **Mikel Urdangarin.** Auditoriuma. Martxoak 31, barikua. 20:30.
► **Bertso Saioa.** Maialen Lujanbio, Amets Arzallus, Igor Eiorza eta Xabier Paia. Auditorium. Apirilak 1, zapatua. 20:30.

aldai

TAPIZTEGIA
DEKORAZIOA
ERAKUSKETA
ETA TAIERRAK

Basagoiti etorbidea 32
Tf: 460 90 31
48990 ALGORTA



KLIMATIZAZIO

INGENIARITZA

INSTALAZIOA

MANTENIMENDUA

Otxandategi tar Simon 114

48640 Berango, Bizkaia

Tel. 94 668 15 51

Faxa. 94 66829 92

e-mail: vasa@vasa.biz



ADITUAK GARA PINTXO ETA
BOKATA BEROETAN!!!!

BASAGOITI ETORBIDEA 51
ALGORTA

[albuma]



Getxoko zinekluba

Urgull kaleko lehengo Kultur Etxeko gela batean 16 mm-ko filmak proiektatzen hasi zen Getxoko zinekluba orain dela 25 urte baino gehiago. Gaur egun, zorionez, ekimen horrek badu jarraipenik eta eguaztenero Getxo Antzokian filma eskaini eta ondoren eztabaida egoten da. Oskar Fernandez eta Manu Gomez zinemazale porrokatuak dira -Kultur Etxearekin batera- ekimen txalogarri honen bultzatzaileak. Hurrengo irudiak zineklubaren giroaren aiderezgarri dira.

Argazkiak: **Asier Mentxaka**





Sokamuturra

Mikel Martinez

Otoitz egiteko unerik egokiena ez da izaten Portu Zaharreko jaietako sokamuturra. Bestalde, beste irakurketa bat ere egin genezake, aurrekoa belauniko, irria ahoan eta atzekoa pizti baten moduan... Ejem. Arazo bakarra atzekoa bigantxa sano handia dela da, baina esakerak dioen legez: bakoitzari berea...







Argazkigintza ikasten

Leioako Alzaga Ikastolan 1986 eta 1996 urteen artean egindako argazkiak ekarri ditugu oraingoan *Fotografia* atal honetara. Urte haietan argazkigintzari buruzko eskolak ematen zituen Juan Luis Markaida argazkilaria eta irakasleak ikastolan. Horrela OHOk 7. eta 8. mailako ikasleek fotografiaren nondik norakoak ezagutzeko aukera zeukaten lantegi haietan. Ekimen honek Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailaren berrikuntza pedagogikoko sari bat jaso zuen. Eta hori gutxi balitz, eskola haietan egondako hiru lagun gaur egun argazkilaria profesionalak direla jakin dugu.

Argazkiak: **Juan Luis Markaida**







www.argia.com

goitik_behera_berriturik



zineeskola

Oskar Fernandez

Kulechov efektua

Zinemaren hizkuntzaren garapenerako muntaketa oso garrantzitsua izan da. Muntaketaren ikerketak XX. mendearen hasieran gauzatu ziren. Muntaketa ikerketa komuna izan zen, baina David War Griffith zuzendari handiak eta aitzindariak zinema baliabide honi behin betiko bultzada eman zion. Muntaketak adierazpen psikologikoen baliabide bezala erabiltzen hasi ziren. Lehenengo ikerketak Sobiet Batasunean egin ziren; izan ere, iraultzaren ondoren zinemagile gazte talde batek zinema adierazpenari ikuspegi berria eta iraultzailea eman zion. Haien artean Sergei Mijailovich Eisenstein, Vsevolod Iliarionovic Pudovkin, Alexander Dovjenko eta Lev Vladimirovic Kulechov, besteak beste, aipa ditzakegu. Muntaketan sobietar zinemagileak maisu handiak izan ziren. Kulechov zinemagile gaztea zen eta Zinema Institutuko irakaslea. Mila bederatzehun eta hogeita batean Laborategi Esperimentala inauguratu zuen eta honetan ikerketa desberdinak burutu zituen muntaketak zineman zuen ahalmena frogatzeko eta erakusteko. Kulechov film garrantzitsuak zuzendu zituen, haien artean satira atsegin bat da aipagarriena: *West Jaunaren aparteko abenturak Boltxebikeen Herrian*. Baina Kulechoven ospea egindako esperimendu bategatik dator. Ikus dezagun zein izan zen esperimendu hori. Kulechov Ivan Mosjukin aktorearen aurpegia, espresiorik gabe, lehenengo planoan grabatu zuen. Beste hiru plano desberdin ere bazituen: salda plater bat (lehenengo planoan ere bai), emakume xarmangarri baten portaera eta neskato baten gorpua zerraldatzen. Kulechov Ivan Mosjukinen aurpegia aipatutako hiru planoen atzetik jarri zuen. Ikusleek aurpegi berdina izan arren goraiatu zuten aktorearen interpretazioa gosea, desioa eta tristura adierazteko. Horrela, muntaketak ikusleengan duen garrantzia nabarmen frogatuta

Euskal zinea aztergai Leioan

Emanaldiak, hitzaldiak eta erakusketa antolatu dituzte **apirilaren 1etik 10era**

Apirila Euskaraz Blai programaren ekintzen artean Euskal Zinearen astea prestatu dute Kultur Leioako arduradunek. Lehen eta Bigarren Hezkuntzako leioako ikasleei zuzendutako ekitaldiak dira eta 3 filmen emanaldiak, bi hitzaldik eta erakusketa batek osatzen dute apirilaren 1etik 10era arteko egitaraua.

Alde batetik, Supertramps animaziozko filmaren maketak Ambigun egongo dira ikusgai apirilaren 1etik 10era (10:00-20:00).

Beste alde batetik, hurrengo filmak emango dituzte, ohi legez Kultur Leioako auditoriumean: apirilaren 3an *Kiriku eta Basapiztiak* emango dute (09:30-11:00), hurrengo egunean *Kalabaza tripontzia* pantailaratu dute (09:30-11:00) eta hilaren 5ean *Oliver Twist* (09:30-11:00-17:00).

Amaitzeko, bi hitzaldi ere antolatu dituzte, euskal zinemagintzaren inguruan jardungo dute hizlariak: gidoigintzaren gainean

« Lehen eta Bigarren Hezkuntzako Leioako ikasleei zuzenduta dago »

eta azken boladan estreinatuko den entzute handiko film bati buruz. Apirilaren 5ean (11:00, Auditorium) Unai Iturriagak hartuko du hitza, berbarako *Unibertsolariak*



Unai Iturriagak gidoigintzaren gainean jardungo du

(2003) animaziozko filmako esperientziak baliaturik, film baten gidoia zelan egin azalduko du Durangokoak. Hilaren 8an Iñaki Irastorza izango da berbaldiaren gidari eta Bernardo Atxaren liburuan oinarrituta Montxo Armendarizek pantaila handira eroan duen Obaba pelikulaz jardungo du.

Hala bada, euskal zinea ume eta gazte leioaztar euskaldunci hurbiltzeko aukera paregabea eskainiko du Kultur Leioak apiril hasieran. m

Ez galdu > *La casa de las dagas voladoras*

• Non: Getxo Antzokia • Noiz: martxoaren 22an, eguaztena • Ordua: 19:30 • Cinema Paradiso



Film honen atzean txinatar zuzendaririk ospetsuena eta ezagunena dugu: Zhang Yimou. Berak zuzendu du film liluragarri hau eta gidoian ere parte hartu du. Hasieratik arrakasta handia lortu zuen 1987an *Sorgo rojo* egin zuen zuzendariak. Honen ostean zuzendutako film gehienak oso arrakastatsuak izan ziren: *Semilla de crisantemo* (1990), *Linterna gorria* (1991), *Qiu Ju, txinatar emakume bat* (1992), *Ezta bat gutxiago ere* (1999), *Etzerako bidea* (1999), besteak beste. *Daga hegalarien etxea* edertasunaz betetako istorio erakargarri eta atsegina da, tragedia handia izan arren. Kutsu magikoa ere badago film bikain honetan. Koreografiak izugarri ederrak dira, begietarako opari izugarria. Film eder eta liluragarri honek Shakespeare dramaturgo handiak hain ondo jorratu zituen maitasun kontuen ezaugarri batzuk ditu.

MusikHerria disketxea

Disketxe eredu berria martxan ipintzeko lehenengo notak jo dituzte eta entzun dira dagoeneko



Dagoeneko 70 taldek egin dute bat egitasmoagaz. Informazio gehiago: www.musikherria.org

Pasa den urte amaieran herri disketxe alternatibo baten sorreraren berri eman zuten: MusikHerria. Martxo hasieran egin zuten aurkezpen ofiziala Durangon, egun osoko jaialdi erraldoi batean. Baina sorrerako ideia orain dela urte bat inguru erditu zen Markinan ospatutako Gazte Mugi topaketetan, musika lantaldeetan. Orduko xuxurla garrasi da gaur, eta oihartzun handia lortu du euskal musikaren munduan. MusikHerriakoek dioten legez “musikariak eta musikazaleak” osatzen dute egitasmoa. Dagoeneko 70 taldek egin dute bat proiektuagaz eta hauek dira ida-

tzi gura dituzten pentagrametako lehenengo notak: *“Egitasmo herritar eta kulturala da: musika sorkuntza, ekoizpen, edizio eta zabalpena; autogestioan sinesten dugu; ez dugu sinesten gaur egun planteatzen den jabego intelektualaren moldean, eta ez ditugu onartzen horren kudeatzaileak; musika hedatzeko eta zabaltzeko da eta ez batzuen poltsikoak betetzeko negozio ustela”*. Copyleft eta anticopyright lizentzien alde agertu dira, *“musika sarean eskegiko da, baina taldeek beste euskarri fisiko bat erabil dezake nahi izanez gero”*. Bi CD bilduma plazaratu dituzte eta Gaztete Bira martxan dago. m


diskoak

6 dementes contra el mundo
Def Con Dos



Irailaren 3an Leganesen egindako emanaldian oinarrituta dago taldearen azken lana; izan ere, euren historiako abestirik ezagunenaren errepaso eginen dute. Diskoa bi formato ezberdinetan aurkeztuko da, ohiko CDan eta CD+DVDan eta, besteak beste, *Acción mutante*, *Tuno bueno el tuno muerto* eta *El día de la bestia* abesti ezagunak izango ditugu entzungai.

Elurretan...
Elurretan
Moonpalace records



Mara Mara kaleratu zutela hilabete gutxi batzuk igaro diren arren, Kirmen Uribe idazlearen poesia liburu baten gaztelaniazko bertsioak olerkiak bildu dituzte Elurretan taldeko kideek. Zortzi kantuz osatuta dago lan berezi hau. Berezia, alde batetik gaztelaniaz abesten dutelako eta, bestetik, *elurretan.com*-en edo Moonpalace Recordsen webgunean soilik eskuratu ahal izango delako.

Amorrúa
Iker Goenaga
Elkar



Bilabonako trikitalariaren azken lana tradizio etnikotik eratorritako disko modernoa eta erakargarria da. Iker Goenagak kaleratzen duen hirugarren diskoa da honako hau eta euskal soinu folkaren ikuspegi unibertsalarekin nahastu du, ermito akustiko-elektronikoekin. Angel Unzu gitarra-jotzaileak ekoiztu du lana orangoan. Aurkezpen kontzertua Getxo Antzokian izango da, apirilaren 6an.

disko berria > Standard



Pasa den urtean Benicasimoko Nazioarteko Jaialdiak eta Radio 3k antolatzen duten Proyecto Demo lehiaketa irabazi eta

gero ez zaie kontzertuetarako deirik falta izan Standardekoei. Baina lehenengo diskoa grabatzeko ordua heldu zitzailela-eta abenduan Tio Pepe estudioetan (Urduliz) sartu ziren. Getxo-Bilbo aldeko musika taldeak 3.000v 40.000w izena ipiniko ei dio estraineko diskoari, Inaz Fernandez bideoklip bat ere badakar. Banatuko duen Mushroom Pillow disketxetik diotenez hilaren 28an egongo da plazan. Deu Txakartegi (ahotsa, baxua), Juan Escribano (gitarra), Londonboy (bateria), Javi Letamendia (bateria), Jens Wolfersdorf (gitarra) eta Paulino Riosek (teklatuak) osatzen dute Standard.

Informazio gehiago:
www.wearestandard.net

kontzertua > Mikel Urdangarin

Leioako Euskara Zerbitzuak martxoaren 31rako antolatu du Mikel Urdangarinen kontzertua (20:30, Kultur Leioa). Zornotzako kantugileak *Dana* bere azken diskoko kantu guztiak aurkeztuko ditu seguru Leioako oholtza gainean eta gerta daiteke hurbiltzen direnek aurreko sei lanetako abestiren bat ere entzuteko aukera edukitzea. Urdangarinen ahots gozoaz belarriak buzti gura duenak 10 euroko sarrera eskuratu beharko du, eta egiteko hori ahalik eta arinen egitea ez litzateke ideia txarra izango.

etorri
eta
ikusii!!

MORIXA
liburudenda

Alangoeta 8 (Euskal Herria kalearekin bat)
Tfn.: 94 491 23 79
Algorta

Bihotz Handi
Getxoko odol emaleak

Odola emateko egunak
ordutegia: 16:30 / 21:00

Algortako San Nikolas plaza
apirilak 10

Erromoko kulur etxea
apirilak 6

Zatoz odola ematera,
ez itxaron!

Informazioa: 900 720 389

94 491 13 37
uk@aldizkaria.biz

[liburuak]

Jules Verne esku artera

Martxoaren 29tik apirilaren 4ra ospatuko da Getxon **Ume eta Gazte Liburuaren Eguna**

Iaz bete zen bere heriotzaren mendeurrena, baina orduan Hans Christian Andersen izan zuen lehiakide eta azken honen alde erabaki zen omenaldia. Zorra kitatzeko zegoen, eta aurten Getxoko liburategiek Jules Verneren oroimenez prestatuko dute Haur eta Gazte Liburu Eguna.

Martxoaren 29tik apirilaren 2ra bitartean Verneren munduetatik barna bidaiatuko dute ume eta gazte getxoitarrek. Lantegiak, ludoteka, erakusketa eta eskola-umeen jendaurreko irakurketak iragarri dituzte antolatzaileek, askok zientzia fikzio

«Erakusketa, lantegiak, ipuin kontalariak, jendaurreko irakurketak...»

modernoaren sortzailetzat jotzen duten idazlearen obra ezagutzeko helburuagaz, eta bide batez irakurzaletasuna sustatzeko. *Jules Verne: irudimenetik errealtaterara* erakusketa Villamonte kultur etxean egongo da ikusgai (martxoak 29-apirilak 4). Idazle frantziarraren lanen pasartean irakurketa martxoaren 31an (Villamonten, 10:00) egingo dute Getxoko hainbat eskolotako haurrek eta aukeratutako liburuen artean *Munduari itzulita 80 egunetan* (euskaraz-gaztelezeraz), *15 urteko kapitaina* (euskara-



Jules Verne (Nantes, 1828 - Amiens, 1905)

gaztelezeraz) edo *5 aste globoz* (euskara). Eta apirilaren 1ean (18:00) *Ipuinaren bihotzeraino* antzerki lana egongo da.

Verne ez zen zientzialaria, abokatutza ikasi, eta idazle zen ogibidez. Garaiko ikerketa eta ezagutza zientifikoaren eta teknologikoaren jakinaren gainean zegoen, horiek ardatz hartuta asmatu eta idatzi zuen; batzuetan igarri, besteetan ez; baina zientziar baliaurik haren aukerak antzematen ahalegindu zen, bide eta leku berriak aurkezten... eta hainbat "zientzia nobela" eskaini zizkigun, aipatutakoak gain: *Viaje al centro de la Tierra*, *De la Tierra a la Luna*, *La isla misteriosa*, etab. m

liburuak



Hona hemen gu biok
Dorothy Parker
Alberdania-Elkar

Idazleak aldizkarietan argitaraturiko ipuin bilduma bat da, baina kontakizun guztiek nolabaiteko giro edo hari bera dute. Batez ere, gizon eta emakumeen arteko harremanen inguruko istorioak aurkituko ditugu liburu honetan. Mirentxu Larrañaga Sueskunek itzuli ditu testuak.



Hildakoen entziklopedia
Danilo Kis
Alberdania-Elkar

Idazleak eleberriz-entziklopedia dela azpimarratu duen arren, kontakizunen bilduma bat dela esan daiteke. Ipuinek gai komun bat jorratzen dute: heriotza. Gainera, istorio bakoitzak kode berezi bat dauka: kondaira, gutuna... Liburuaren amaieran egilearen *post scriptum* bat agertzen da, liburuaren sorreraz azalpenak ematen dituenak.

[kirola]

Raquel Hernandez > taekwondo

“Ez dut amore emango, baina 2012ko Olinpiar Jokoetan egoteko aukera handiagoak dauzkat”



Senior mailako 2. urtea dauka aurtengoa Hernandezek

Hemeretzi urte betetzear eta 2008ko Pekingo Olinpiar Jokoak buruan. Sei urte zuzkalari hasi zen Raquel Hernandez taekwondotan, aitaren pausoei jarraiki: “*Aitak laster antzemana zuen aukerak banituela eta txapelketan sartu ninduen, egia esan, kosta zitzaion neu konbentzitzea, ez nuen lehiatu gura, baina lehenengo haur mailako txapelketa irabazi eta ordutik taekwondoaren mendean erori naiz*”. Eta egin du dagoeneko bidea Hernandezek: 20 urteko domina, 6 zilarrezko, 2 brontzezko, Munduko txapeldunorde (2004), Espainiako Txapelketan 2 zilarrezko (2005, 2006), etab.

Olinpiar Jokoetarako prestatzen dabil orain. “*Ez dut amore emango, baina 2008etarako sailkatzea nahiko gax ikusten dut, hiru jokalaririk gabiltza horretarako borrokan, baina beste biak oso onak dira eta... 2012koetarako aukera handiagoak ditudala uste dut*”, aitortu du getxoitarrek. Aurrez aurre dauzkan txapelketan artean daude Holandako Opena eta Errege Kopa (biak Olinpiar Jokoetarako sailkatzeko puntuagarriak); gainera, Europako txapelketan parte hartzeko aukerak ere badauzka.

Orain Madrileko goi mailako zentro batean dihardu trebatzen: “*Pentsatu barik eman nuen etortzeko baiezkua, hemengo federazioak ate gehiago zabaltzeko giltzak dituelako; gimnasioan bada-go maila nahikoa daukan jendea eurekatzu trebatu ahal izateko, gutxi baina badaude... harrobiari begira, maila handiko lehiakideak daude Euskal Herrian, podiumean beti euskaldunen bat egoten da, baina elkarregaz entrenatzeko aukera gutxi dago*”. Hasiberrientzat hurrengo aholkua utzi du: “*Pazientzia eduki dezatela, atean lehiatzen hastea*”

«Taekwondoa ez da indarkeria, ez da bortitza; kirol oldarkorra da, baina azken finean kirola»

bada euren asmoa gax daukate, lehenengo teknika ezagutu behar da eta nire ustez, behintzat, hori ez da taekwondoaren alderik enakargarriena”. Oso terantzean, zera argitu gura izan du: “*Taekwondoa ez da indarkeria, bortitza; oldarkorra edo erasotzailea baino, azken finean kirola da, tapizaren gainean lehiatu egiten dugu, ez dugu borroka egiten, tapizean kiroltasuna da nagusi*”. m

BISITATU GURE DENDA!

MOROTXO

Kantxa
Kirol moda




350 m²
KIROLERAKO GUZTIA!!

**URIBE KOSTAKO
KIROL DENDA**

TORRENE 4, ALGORTAKO AZOKA
48990 ALGORTA / TF. 94 491 18 82

ETXKO ELEKTROTRESNEN KONPON-
SERVITEC

Lacofris, s.l.



& 94 430 52 00 Kasune, 18 · ALGORTA

BEROGAILU ETA ITURGINTZA

T: 430
HIRURAK

Sarrikobaso 15

Xabier Basañez > BECeko zuzendari orokorra

“Zuzendaritza-lana ez da oso desberdina kotxe-fabrika batean, egunkari batean edo BECen”



Xabier Basañez bere bulego berrian

Xabier Basañez, 37 urteko algortarra, orain aste gitxi hasi zen BECen beharrean, ez edozelango karguan: zuzendari orokorra da, izan ere, Basañez. Ardura ez da arrotza berarentzat, aurretik Deian ere eduki du eta. Bere bulego berriko aulkia berotzeko ia astirik emon barik elkartu ginen beragaz; hamar egun baino ez zituen BECeko lemari eusten, ondoko berbalditxo egin genuenean.

—Enpresa-ikasketak amaitu eta berehala hasi zinen beharrean. Normala da hori?

—Suerte izan nuen, egia esan. Aurreko urteetan aukera gehiago egoten zen, baina 90eko hamarkada ez zen sasoi ona lana arin topatzeko. Nik nota onak nituen, eta suerte apur bat ere bai.

—Orduan, unibertsitatean zeundela joan ziren zure bila? Ohikoa da enpresek hala egitea?

—Garai hartan -eta gaur egun ere uste dut egiten dutela-, honelako multinazionalak

laugarren mailan hurbiltzen ziren unibertsitate-tertera, eta han hartzen zituzten gure ikasketak-espeditenteak. Nik proba batzuk egin nituen Arthur Andersen-en lehenengo, eta Coopers & Lybrand-en gero. Berehala sartu nintzen. Suerte edo suerte falta, ez dakit; irailaren batean harrapatu ninduten, 23 urte neuzkala, hondartzan, eta esan zidaten: “Aizu, 16an hasi behar duzula”. Baina tira, esan behar dut suerte onekoa izan nintzela. Bederatzi urtez egon nintzen Coopers & Lybrand-en. Normalean junior auditore

moduan hasten zara, eta gero igotzen zoaz. Ni gerentea izatera heldu nintzen.

—Eta handik Deia...

—Deia baino, hobe Editorial Iparragirre esatea, jendeak nahastu egiten ditu. Iparragirre Deia argitaratzen duen enpresa da, eta gero egunkariak badauka bere zuzendaria, baina nik ez daukat zerikusirik kazetaritza aldearekin, ni gestio-zuzendaria nintzen. 2000 urtean sartu nintzen zuzendariaren alboko moduan; askotan kasualitateak izaten dira, eta handik urte bira zuzendariak utzi eta nik hartu nuen haren lekua.

«BECen eskaintza jaso eta berehala somatu nuen interesgarria izango zela»

—Azkenik, BECen..

—Bai, eskaintza jaso eta berehala somatu nuen interesgarria izango zela, proiektioagatik, tamainuagatik... Polita iruditu zitzaidan eta azkar egin genuen akordioa.

—Zelan ausartu zinen etortzera, BECen egiten denaz ezer jakin barik?

—Ez dago alde handirik erakundearen artean. Egiten dutena oso desberdina izanda ere, gestioa, zuzendaritza ez da desberdina. Azken batean, zuzendari nagusiak giza eta dirubaliabide batzuk erabili behar ditu, helburu batzuk lortzeko, eta hori ez da oso desberdina kotxe-fabrika batean, egunkari batean edo BECen.

—Badago oso zabaldutako irudi bat: **exekutibo gaztea, erasokorra, “marratza”...**

—Pentsatzen dut halakorik egongo dela, baina ez da oso normala. Bilbon, Bizkaian, txikiak direnez, ez dago halako askorik, beharbada Madril-en... Nik badaramatzat urte batzuk enpresa-zuzendaritza munduan, jende asko ezagutzen dut, eta jendea ez da horrelakoa, nahiz eta batzutan itxura hori eman. m

Esakere > “Abese ikisten badosu salbata gaus”



Irudia: Gorka Vazquez

Batzuk esaten dauden lez, librukez kargata dabilen asto ez da beti yakitune. Zeozer gehiago behar da asko ikisteko eta yakiteko liburu asko aukite baiño. Zorionarako edo txarrarako, gaur eguneko bizimodun ikisi ta ikisi beste erremediorik ez deku, bizimoduk horretara eroten gaituz eta. Eta gitxi direz gaur egun iñusentek eta ikisibakok: “latiñe” dakiu danok, danak gara aberatsak alde horretatik, baia astori libruk leduten ireksten dotsona, hori bai ixengo dala hogereketan aberatsa.

Esakeratxu hau I. Gilisastin Berba lapikokoa liburu ederratik atara dogu.

Gureberbakere 73

ZELAN ESAN

Berbeta luze baten

Ikusi dogu beste Berbakere batzuten zelan informaziño emon eta eskatu, zelan hasi eta akabaten dan berbeta bat. Berbakere honetan hasi egingo gara ikusten zelan atonduten dan sarri berbeta luze bat, esplikaziño luze bat.

Testua: **Xabi Bilbao**

Hasteko modu batzuk

Hara...!

Hara, hautxe da kontu:

Hara, gauza bat esan ber (behar) dotsut:

Aitu...!

Aitu, hau da esan gure dotena:

Aitu, gauza bat esango(do)tsut:

Ba(da)kizue zer?

Entzuzu/e apur beten:

Itxiostezu/e gauza bat esaten:

(Eg)in nei berba nik?

Itxiko(do)stezue gauza bat esaten?

Nik gauza bat esan gure nauke:

Entzuten daunen erantzunek

(Eg)izu berba zuk, bai.

Ia, esaizu ba.

Bota!

Berbetan erdin ideak atonduteko berba batzuk

Hasteko hau ta hau, ta ganera...

Hau holan da, baia ez hori bakarrik... Alde batetik hau ta hau, ta bestetik... Eta horreetik... (horregatik) Eta bitarten esango(do)tsut...

Adibidek

—*Aitu! Béste aparátu bet heldu dala Martera! Kasik egunero dabiltez hárrik kóyuten (hartzen), ta nik diñot...*

—*Bai, baia hórrekaz deskubriméntukez gero hemen lurren...*

—*Bai, deskubriméntuk, baia itxiostezu gauza bat ésatén...*

—*Kontu da gero lurren aurrerakúntzek...*

—*Aurrerakúntzek, bai, baia entzúzu apur betén...*

—*Bai, bueno, íxu (egizu) berba, bai, zer.*

—*Hára, hásteko, zetán yon ber du (dogu) Mártena hemen bertan dana nahastáta bádeku. Tá gánera dékun gánoreaz hango lúrek bere kaka ínte (eginda) itxiko duz (doguz). Horréituk, ónena Martzianok áurek etor daitezela lélau (lehenago) hona, ondo armáta, ta gu danok garbitu, ezpabere galdúte dauz.*

Zure publizitatea hemen
Zure publizitatea hemen
Zure publizitatea hemen

94 491 13 37

Errotalde
ileapaindegia

HARTU TXANDA TELEFONOZ!!

T: 460 38 90

Errotalde 18A / ANDRA MARI, GETXO

GAVRKO



GIZONENTZAKO
MODA

Telletxe 5
ALGORTA
T:

María Jesús

ILEAPAINDEGIA ETA EDERGINTZA

Alangobarri 10
T: 4910821
ALGORTA

HARTU TXANDA



gaizka escudero / basalboko

Txipiroiak

euren tintan

Hamaika modu dago txipiroiak prestatzeko, etxeoandre bakoitzak bere sekretuak ditu. Nik hain gustuko daukagun plater hau prestatzeko modu erraza proposatuko dizuet. Hasteko oliba oliotan berakatzak eta ogi siku zati batzuk urreztatu. Ogia baztertu eta olio berean barazkiak (tipula gorria eta piper berdea) julianan zatituak gehitu. Su ahulean egin apur bat eta ondoren tomatea (azal barik) eta aurretik urreztatu dugun ogia bota. Ondoren txipiroiak, beteak, eta ardao zuri apur bat gehitu. Su ez-tian egin txipiroiak, hoguei bat minutu edo. Txipiroiak baztertu eta tintak bota barazkiei. Beste bost minutu eduki sutan eta hau guztia txinotik pasatu. Amaitzeko nahastu txipiroiak eta saltsa. On egin! ^m

osagaiak

kilo 1 txipiroi • 3 tipula gorri • 3 piper berde • 6 berakatz ale • 2 tomate • arrain salda basoerdi ardao zuri • ogi zati bat



itsaso arana / jolastokikoa

Sauvignon

blanc

Bordel eta Loira aranean gehien lantzen den mahatsa da *sauvignon blanc*. Han du-eta jatorria mahats zuri honek. Oso kalitate handikoa da, fruitu txikiak ematen dituena eta ontzen direnean kolore urreztatua hartzen dute. Asko zabaldu da bere laborea munduan zehar; izan ere, oso ondo egokitzen da klima desberdinetara. Argentinan, Txilen, Uruguain, Kaliforniako kostaldeko arantetan edota Italian arrunta da *sauvignon blanc*. Hala ere, munduan mahats honekin Zeelanda Berrian egindako ardoak dira gehien estimatzen direnak. Espainiako estatuan, Rueda jatorri izendapenak hartzen duen lur eremuan asko landatu da, eta neurri txikiagoan, Katalunian.

Mahats aromatikoa da, indartsua, gogora fruitu tropikalak ekartzen dituena, lore ikutu arin bat ere badaukana. Oso atsegina da eta ematen dituen ardoak oso erraz edaten dira. ^m



Nahiana taberna

Pintxo eta kafe gogoangarriak



Mikel Rotaetxe eta Lourdes Etxebarria

Euren ordura arteko lanekin aspertuta eta kokoteraino zeuden Lourdes Etxebarria eta Itziar Aurrekoetxea. Algortan Nahiana taberna salgai zegoela ikusi eta birritan pentsatu barik euren lanak utzi eta egun batetik bestera hostalari bihurtu ziren biak. Hau orain dela 10 hilabete gertatu zen eta Lourdesek esan digunez, *“ezin gara kezatu, oso pozik gaude hartuakoen enabakiarekin”*. Hasieratik gustu onaren aldeko apostua egin zuten: pintxo zainduak eta kalitatezko kafe eta teak. Guatemalako kafe gozo-gozoa eta munduko urruneko bazterretatik ekarritako teak dasta daitezke Nahianan. *“Tea eta kafea etxera erorteko ere saltzen dugu, aletan edo ehotua, bezerearen gustura”*.

Honez gain, tabernako pintxoak ere kategoriakoak dira, maila handiko mokaduak. Lehen Idoia Lazkano ibili zen sukalde lanean, orain dela hilabete bi, berriz, Mikel Rotaetxek hartu zion lekukoa. *“Betiko pintxoek gain, gauza berriak asmatzea gustuzen zait”*. Betiko pintxoak, esaterako, patata tortilazkoak dira. Han probatu duguna gogoangarria iruditu zaigu; seguru asko herriko tortilarik onena eskaintzen dute Nahianan. Mikelen asmakizun bat, adibidez, reineta sagar, foie, ahuntz-gazta, intxaur eta modena ozpin siropea daroan pintxoa da. Ikaragarria! Eta horrela beste hamaika gutizia jan daitezke han. ^m

NAIHANA Euskal Herria, 1 - Algorta

TXIKI-AUNDI KAFETEGIA
ezagutzen al duzu?

herriko pintxorik onenak ditugu etorri eta probatu!!

Amezti, 10 / T: 94 460 57 57 - ALGORTA

Zurikaldai

JOKIN GARATE BAYO Neguriko Etorbidea 9 T: 491 14 87 48990 NEGURI
KIMETZ GARATE AZURMENDI Aingeruaren etorb. 4B (sarrera, Jata Mendia) T: 460 01 87 48990 GETXO

CAFE
Usategi
ALGORTA

Usategi parkea z/g - Tel. 94 460 64 13

KONTXI
ZUZUBISKAR

URDAITEGIXA

Adituak gara, Urdaiazpiko Iberiko, Pate eta Gaztietan!!

Alangobarri, 10 ALGORTA
T.: 94 491 02 93

G gOZOLABEA

galdaretxe

• Maidagan, 35 GETXO Tel. 94 491 11 25
• Mayor, 17 AREETA Tel. 94 464 77 29
• Sabino Arana, 67 LEIOA Tel. 94 464 40 58
• Telletxe, 11 ALGORTA Tel. 94 460 32 14
• Sabino Arana, 9 SOPELA Tel. 94 676 11 01

JUAN-MARI



Harategia eta txarkuteria



LAS MERCEDES 31 • TEL.: 94 464 41 25
AREETA

Asado
r



- Zabalik egunero
- Eguneroko menuak
- Enpresa menuak
- Menuak norberaren gustura
- Egunero karta berezia
- Gauetz dastatzeko menua astelehenetik- ostegunera
- Jaun hartze bazkariak

Aretxondo 14
Algortako Portu Zaharra / Getxo
Erreserbak: 94 491 25 93



prentsa • aldizkariak
GETXOKO KIROI PORTUA
Arriluze z/g • Tel.& Fax: 94 491 53 21
ALGORTA • GETXO

BATIZ KRISTALDEGIA



- BIDRIERAK
- GRABATUAK AREA TEKNIKAREKIN
- IZPILU ERRALDOIAK
- INSTALAZIO OROKORRAK
- FUSIN

Illeta z/g (Sarrikobasoerikin bat)
T:94 430 69 42 /ALGORTA

GOIZEAN



“Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez
Prentsa - Fruitu lehorrak - Aldizkariak - Lixarriak

Orduña Mendatea 1 Telletxe 13
T: 430 22 13 T: 460 02 88
GETXO ALGORTA

**aldizkaria
etxean jaso
nahi baduzu**



uk@aldizkaria.biz
94 491 13 37

[horoskopoa]

<p>URA t</p>  <p>(Abenduak 21 urtarrilak 19) “Triste bizi naiz eta bilko...” negar egin baino zergatik ez duzu barneratzen beste kantu hau: “Ez dago ezer tristeagorik tristea izatea baino...”. Eskuak gurutzatuta eta zeure buruaz ahuendaka ibiltzeak ez du ezer konponduko.</p>	<p>OTSOA t</p>  <p>(Urtarrilak 20 otsailak 18) Eztul horrek ez dauka itxura onik, azkenengo katarroak ez zaitu guztiz utzi oraindik. Sama lepokoagaz estali eta edan esne beroa eztiagaz. Zaintzen ez baduzu txarrera egingo du eta gerokoak konponbide gaxtagoa edukiko du.</p>	<p>ADARRA t</p>  <p>(Otsailak 19 martxoak 20) Erleak modura zabilta, bai loraz lora ibiltzea gogoko duzu; baina ez zara ezti gozorik ahoratzeko gai. Lili bakarraren edabetik edanez gero, agian lortu dezakezu... Lasai bitartean, udaberriak laster ongarrituko du lurra-eta.</p>
<p>AITZURRA t</p>  <p>(Martxoak 21 apirilak 19) Eguzkiak ez zaitu berotuko ezta bihar ere, baina lasai; gertu dauka negu gorriak amaiera. Liliak jaiotzerako ziur egon hobeto sentituko zarela, gauzak egiteko gogoak biziki sortuko zaizkizula eta zergatik ez zortea izango duzu bizilagun!</p>	<p>HOSTOA t</p>  <p>(Apirilak 20 maiatzak 19) Aldarte onean zaudenean zein gustura ibiltzen diren lagunak zure alboan, barre algaraka lehertu beharrez! Alabaina, azken aldian ekaitza eta afrontua dakuskagu zure buru gainean, egia esan zure irribarra ikusteko irrikan gaudel! Barretxu bat mesedez...</p>	<p>EGUZKIA t</p>  <p>(Maiatzak 20 ekainak 18) Atzo, gaur eta bihar. Hiruretatik orain erabilgarri den bakarra bigarrena, eta zu beste biakaz burugogor eta setati. Zabaldu begiak, garbitu belarriak, argitu burua... ez utzi momentu hau ukitu eta usaindu barik! Bestela, damutuko zara!</p>
<p>GARIA t</p>  <p>(Ekainak 19 uztailak 18) “Kupela, kupela... sagardoan hotela...” Ez da beharrezkoa, azken boladan larregi puztutako jarduera da... baina lagunartez gozatzeko aukera izan daiteke, txo! Edo gozamina hartzeko beste proposamenik al daukazu? Bota bada, eta egingo dugu!</p>	<p>LASTOA t</p>  <p>(Uztailak 19 abuztuak 17) Pentsatu al duzu bera baino zu zurelako arazoak dituen? Itsu, mutu eta gor ibili zara eta horrez gainera besteekin bizkar gainera bota dituzu zure arazoak, akatsak, haserreak... Nahikoa da! Har itzazu zure ardurak zeure gain behingoz!</p>	<p>IRATZEA t</p>  <p>(Abuztuak 18 irailak 16) Gaurkoan kontuan hartzeko proposamen bat egin behar dizugu. Xirika gazte kazetak plazaratu duen azkenengo liburua premiazi erosi beharko zenuke. Euskaraz gozatzeko aukerak aurkezten ditu: Itzulipurdika: xirri partiden irudimenerako gida askea.</p>
<p>META t</p>  <p>(Irailak 17 urriak 16) Aitormen garrantzitsua egingo dizu lagun batek, eta sekretua gorde beharko diozu. Gainera, aholku eske etorriko zaizu. Kontuz ibili emango diozun gomendio-agaz, berba egin baino lehen ondo pentsatu; erabakiak ondorio txarrak sor ditzake.</p>	<p>HAZIA t</p>  <p>(Urriak 17 azaroak 15) Hamabostaldi honetan egin gura dituzun gauza guztiak egiteko denbora edukiko duzu: mendira irteera, etxeko lanak, kotxea garbitu, ikasi, zinemara joan... hori bai ondo antolatu beharko duzu agenda hamaika jarduerarako partehartzailerik izango zarelako.</p>	<p>NEGUA t</p>  <p>(Azaroak 16 abenduak 20) Batuetan nekeak besoak guztiz ahulduta uzten dizkigu goiari hainbeste denboraz eutsi beharregatik. Besoak lasaitzeko desira sentitzen dugu, etsita, gertatu beharreko gertatu dadila, zapaia burua apur dezagula... orduan, tinkoago zuzendu behar ditugu ukondoak.</p>

mungia
oKINdegia




Algortan badaukagu artisauen ogia izen eta jatorriz da “ogi mungia”.

Goizero lortzen dogu obispoen guleria probatu bada edo ez dan benetako egia.

KASUNE 28 - T: 94 430 10 76
ALGORTA

KEKO



GAME OVER

LUMA aldizkariaren eskutik

Ezker eskuin


1. Onurak, etekinak. 2. Zilar. Bokala. 3. Har ezak. Udaren bokalak. Azal mehe. 4. Makurrak. Suari dario. 5. Marraskilo. 6. Amasa hartu ezinik hil. Juntagailua. Selenioaren ikurra. 7. Dauka. Jausiak. 8. Euskal alderdi politiko baten siglak. Hedabide mota. 9. Nor pluralean. Batekoa. Arabako alderdi espainiar eskuindarra. 10. Potasioaren ikurra. Geure... ateratzen ditugu, erakustaldia egin nahi dugunean.

Goitik behera

1. Pl., errepide mota. 2. Mukuruz beteak. 3. Argonaren ikurra. Zoro. Kontsonantea. Abederako azken letra. 4. Nerbio sistema adierazten duen hitz grekoa. Bokala. (Her.) Bada. 5. Ipar., gaiztakeriak. 6. Urrearen ikurra. Bizk., aitortu. 7. Saddam Husseinen herrikoak. 8. 59. Kontsonantea. Kasik. Oxigenoaren ikurra. 9. Bokala. Salatu. 10. Karrika. Eguzkiak.

Soluzioak

K	A	K	O	K	U	K	V	Z	K	K
A	K	A	T	A	B	A	T	B	A	K
E	A	J	I	R	A	T	I	E	A	J
D	U	E	R	O	R	I	A	K	D	U
I	T	O	E	T	A	S	E	I	T	O
B	A	R	A	K	U	I	L	B	A	R
O	K	E	R	A	K	O	K	E	R	A
T	O	U	A	V	H	U	O	T	O	U
U	R	E	Z	U	R	I	A	U	R	E
A	B	A	N	T	A	I	L	A	A	B



asmatu eta irabazi > **bi lagunentzako bazkari bat**



Nor da?

- Euskaldun peto-pettoa.
- Interpretazioa da bere ogibidea.
- Wazemank-en azaltzen da.

> Aurrekoaren erantzuna: Zumeta
> Irabazlea: **Olatz Basauri**

*deitu telefonoz goizez: 94 491 13 37

Bidali erantzuna eta zure izen-deiturak, asmatzen duzuenon artean bi lagunentzako degustazio berezia zozketatuko dugu:
UK Uribe Kostako Aldizkaria. 171 posta kutxa 48990 Getxo
uk@aldizkaria.biz / faxa: 94 491 58 31

Usategi
kafetegia



Usategi parkea z/g, **Algorta**
Telf: erreserbak: 94 460 64 13



Basurto

Algorta S.L.

altzariak

LEHEN, ORAIN ETA BETI

- **1970**az geroztik altzariak diseinatzen.
- 300 m²ko erakusketa **ZURE ZAIN!**
- **ARMAIRUAK NEURRIRA** egiten ditugu (Telletxe 4)

Telletxe 4 • T: 460 71 62 / Telletxe 15 • T: 460 42 44 • **ALGORTA**



ANGEL ZALBIDEAK UITZITAKO ARGAZKIA

Bittor Egurrola

Getxo Txiki futbol taldea, 1934

Gure eskuetara heldu den argazki honen atzealdean honela irakur daiteke: "Getxo txiki, 1934. urtea". Futbol talde hau, garaiko Club Deportivo Guechoko bigarren taldea izango zela susmatzen dugu. Zabala ikastetxean, 1927ko ekainaren 9an egindako bileran, herrian futbol talde bi egitea erabaki zuten eta honetarako ere arduradunak izendatu zituzten: Mateo de Agirregoitia, Felix de Ormaza eta Ricardo de Llantada, hirurak futboleko adituak.

Azpitarratu behar da argazkian azaltzen diren artean bat baino ez dela gaur egun bizi: Angel Zalbidea, 90 urte baino gehiago dituen. Beste datu interesgarria da Agirre Lehendakariaren hiru anaiarik txikiak argazkian agertzen direla: Teodoro, Iñaki eta Angel. Handik urte gutxitara gerraren ondorioz, atzerrira alde egin behar izan zuten, berriro ere elkarrekin jokatu zuten hirurek Belgikako Anderlech futbol taldean. m

Zutunik: Vicente Valle, Juan Aiestaran, Larrazabal, Bergaretxe, Lauzurika (atezaina), Imanol Arrieta, Teodoro Agirre (entrenatzailea? delegatua?)
Makurtuta: Iñaki Agirre, Angel Zalbidea, Angel Agirre, Txokolea, Kintana.

[aitormenak]

AIORA RENTERIA > Zea Mays musika taldeko abeslaria

“Beste disko bat kaleratzea da nire ametsa”

Testua: **Oiane Moran** / Argazkia: **Asier Mentxaka**



Defini ezazu zeure burua berba bitan.
Urduria eta ameslaria.

Zein filmetan egingo zenuke protagonistaren papera?
Memorias de una geisha, baina jantziengatik baino ez!

Historiako zein pertsonaia miresten duzu gehien?
Miretsi ez dakit, uste dut denek daukatela euren puntua.

Ohitura txarren bat al daukazu?
Oso gozozalea naiz. Gozokiak eta pastelxoak tentazio izugarria dira niretzat.

Aitor dezakezun bizio bat.
Erretzea eta ron kubatak.

Berriz egingo zenukeen bidaiarik ba al dago?
Ikusi ditudan toki guztiak berriro bisitatuko nituzke.

Zer huts egite ez duzu sekula barkatzen?
Berandu heltzea.

Zein da zure ametsetako bat?
Beste disko bat kaleratzea da nire ametsa.

Lo egiteko ezer janzten al duzu?
Neguan denetarik, hotz handia pasatzen dut-eta. Udan, berriz, kamiseta bat janzten dut.

Zer gabe ezin zaitezke bizi?
Lagunik gabe.

Zein da ikusi duzun azken filma?
Good night and good luck, George Clooneyrena.

Eta irakurri duzun azken liburua ?
El mago y las magas, Argentinako Alejandro Jodorowskyrena. m

LABURREAN— Zortea izan zuen Aiorak, askotan ez dira-eta musikan aritzeko kide egokiak aurkitzen. Bilbotar honek klaseko lagunaren artean aurkitu zituen bere ahots indartsuari eusteko gai izango ziren musikari trebeak eta taldea sortu zuten; izan ere, Irakasle Eskolan Asier, Piti eta Rubenekin egindako ikas-bidaian hasi omen zen mamitzen Zea Mays. Antza denez, abesten eta gitarra jotzen eman zuten bidaia guztia eta, erdi txantxetan izan bazen ere, kanta batzuk prestatu zituzten Errekaldeko jaietan jotzeko asmoz. Azkenean, ez zuten emanaldia eskaintzeko aukerarik izan, baina hura hasiera besterik ez zen izan...

XIII. esatera zaharren TXAPELKETA

Apirilaren 1ean SOPELAN

Goizeko 11etatik

Ontzi txikia...

Izena emateko epea
martxoaren 27ra arte
Inskripzioa:
10 € taldeko
Bazkaria:
15 € pertsonako

Partaide guztientzako
oroigarriak

Goizeko lehen fasea
herrian zehar,
finalerdia eta finala
ANDER DEUNA
Ikastolan

ANTOLATZAILEA
ETA
INFORMAZIOA:
Nikola AEK Euskaltegia
94 676 48 76 - 94 421 23 29
nikola@aeknet.net
aitor@aeknet.net



aek

- ASTEBURUA LANDETXE BATEAN ETA AFARIA (4 PERTSONA)
- BIDAIA MALLORCARA ETA AFARIA (4 PERTSONA)
- AFARIA (4 PERTSONA)
- BAZKARIA (4 PERTSONA)

Gainera...
...AEKren Sari Berezia

OIHANE PEREA ETA JON MAIA BERTSOLARIAK

Kolaboratzaileak: Batzokia, Brendan's isle, Carpe Diem, Denver, Elai, Elizpe, Erroia, Ertza, Etxebarri, Frontoia - Serviocio, Gambrinus Sopela, Gaztedi, Gerizpe, Gure Atea, Gurea, Lagun Artea, Laiak, Lurren, Mikelats, Sertutxa, Txindor, Uyarra, Völker Paulaner-Biergarten, Zuri Haltz, Nela, Norte, Setien, Zeñe, Zutarri.

Laguntzaileak: Algortako Bertsolari Eskola, Artadi Garagardotegia, Iru Bide, Itxaso, Mesón Jauregui Jatetxea, Meñakoz, Urbaso.

